



ttipi-ttapa



**GENERO INDARKERIAREN
AURKAKO EGUNA**

«EZ NAIZ KONTURATU ERABAT ZANPATU NAUELA»

Bikotekidearengandik tratatu txar psikikoak
jasan dituen eskualdeko emakumezko batek
20 urtez sufritu duena kontatu dio TTIPI-TTAPARI. Poliki-poliki
aitzinerara doan arren, oraindik beldurtuta segitzen duela aitortu du. / 10

Aizkolarien hitzordua Donezteben

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketako finala abenduaren 6an Donezteben izanen da. Tartean Rekondo eta Saralegi anaiak ariko dira. / 46

SINADURAK




ttipi txartela

Joane Sorando Odozola
72873152-A
2021/04
372

ZOKKETA / 56



Ion Mayordomo
Pleura musika
taldeko kidearekin
solasean / 8



Covid-19a arazorik
gabe gaintitu duen
Oihana Elizalderen
bizipenak / 26



Baztango Gazte
Asanbladaz mintzatu
da Aurrerena Perurena
taldeko kidea / 38

BERA LESAKA

Agenda 2020

**AZAROA
ABENDUA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

28 LARUNBATA

MUSIKA KEA AHOTS TALDEAREN EMANALDIA

19:00 Kultur etxean
Sarrera: 8 € (Telletxea - Xagu)

LESAKA

2 ASTEAZKENA

USCOLDUNAC GAREN EZQUERO 2020

Solasaldia: Berako Udal Artxiboan gordetako 1822ko eskuizkribua (Ekaitz Santazilia eta Mikel Taberna)
19:00 Kultur etxeko erakusgela
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea eta Berako Kultur Batzordea

USCOLDUNAC
garen ezquero
2020

29 IGANDEA

ANTZERKIA BERAKO XXII. KAFE ANTZERKI ZIKLOA

Emanaldia: Ez dok hiru (akustikoa) (Tartean teatroa)
18:00 Kultur etxean
Iraupena: 75 min
Sarrera: 3 €
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea

BERA

3 ORTZEGUNA

KEINU-LEIHOAK ANTZERKI JARDUNALDIK GAZTELONDON ZER BERRI

(Mixel Etxekopar, Dominika Rekalt, Jean Christian Galtzetaburu eta Pierre Vissler)
18:30 Harriondoa Kultur Etxean
Antolatzailea: Mairu Antzerki Tailerrak

LESAKA

4 ORTZIRALEA

EUSKARA EUSKARALDIA

Euskaraldiari akabaila emateko ekitaldia.
Bakarrizketa umoretsua:
Txor-txor (Nerea Arriola)
19:00 Kultur etxean
Iraupena: 50 min
Argibide gehiago: www.euskaraldia.eus
Antolatzailea: Bortzirietako Euskaraldia

BERA

5 LARUNBATA

KEINU-LEIHOAK ANTZERKI JARDUNALDIK TRIBIZ, BASERRI GALDUE

(Jon Ander Urresti)
18:30 Harriondoa Kultur Etxean
Antolatzailea: Mairu Antzerki Tailerrak

LESAKA

6 IGANDEA

BERAKO XXII. KAFE-ANTZERKI ZIKLOA ZUTUBERRAK

(Eidabe ekimen kulturalak) 10-14 urte
Iraupena: 55 min
18:00 Kultur Etxean
Sarrera: 3 €
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea

BERA

Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

Materia organikaren gaikako bilketa indartu eta zabaltzeko akonpainamendu kanpaina Bortzirietan

2020. urtean zehar, Bortzirietako Mankomunitateak, Hirusta Hezkuntza Zerbitzuak enpresaren bitartez, hainbat bisita egin ditu bai ostatu, jatetxe edo saltokietara, baita konposta egiten duten bizilagunei ere. Bertze aldetik, auzo konposta egiten duten familiei edo Lesakako edukiontzi marroia erabiltzen dutenei telefonoz deitu zaie.

Eta zuk, zer egiten duzu hondakin organikoekin?

Anima zaitez hondakin organikoak birziklatzera!

Laguntzaileak:

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua

residuos de navarra
nafarroako hondakinak



NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Transmisioak

Sustraietatik elikatzen garen loreak gara. Sustrai horien bidez, ezaugarri fisikoak ez ezik, askatu gabeko korapiloak ere transmititzen dira, gure aitzineko zazpi belaunaldiren istorioak. Programa genetiko batzuk ditugu, piztuago edo itzaliago, eta horietaz jabetuz gure bizitza bizitzea da onena. Ez iraganean katramilatuak gelditzea, baina bai uneren batean gibelera egitea, errepikatzen ari garen jokabideak ikusteko. Bikote harremanetan, adibidez, garrantzitsua ez da bertzeak egiten diguna, baizik eta nola maite dugun gure burua bertzearen bidez (*Se regalan dudas* bi emakume feminista mexikarren podcastean lantzen dute gaia, interesa duenarentzat).

Ilusioa egiten digu umeei gure ezaugarriak ikustek. Baina oroitu Santi Brouard pediaren aholkua: saia zaitez seme-alaben antza izaten, sekula ez eurek zure antza izan dezaten. Transmisioak bertze norabide bat ere baduelako. Ongi etorri, Unax!

«SAIA ZAITEZ SEME-ALABEN ANTZA IZATEN, EZ EUREK ZUREA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Historiarako musuak

1979an Leonid Brezhnev Sobiet Batasunako liderraren eta Erich Honecker Alemaniako Errepublikak Demokratikoko presidentearen artekoa izan zen marrazkietara eraman zuten lehena eta foruzainek txikitutako Maria Chivite eta Bakartxo Ruizaren artekoa azkena, oraingoz. Ez da musuentzako garairik onena, baina, inoiz baino beharrezkoagoak ez al dira?

NABARMENTZEKOAK



MIGUEL
IPARRAGIRRE
SOINULARIA



FELISA
PELLEJERO UGALDE
ERRAKETISTA GOGOAN

Aranztarra sortez, gazterik hasi zen akordeoia jotzen eta 40 urtez irakasle izan ondoren erretiroa hartu berri du. Baztan Musika Eskolako ikasleek txalo eta akordeioi doinuekin agurtu zuten.

1918an Areson sortua, sorteriaren izena eraman zuen Madrilgo frontoira, erraketista moduan aritu zenean. Bere izena du orain Leitzaldeko emakumezkoen frontenis txapelketak.

ATZERA BEGIRA



2010-11-25 · TTIPI-TTAPA · 531 zk.

Sunbillako zubi zaharra ikertuz

Sortez madrildarra izanik ere, gurasoak eta familiako aunitz sunbildarrak zituelako eta gaztetako oroitzapenik ederrenak Sunbillakoak izateak bultzatu zuen Francisco Javier Latasa Alzuri Sunbillako harrizko zubi zaharra ikertzera. Urte bat eta erdiko lanaren ondoren, Principe de Viana aldiakarian karrikaratu zuen artikulua. «Nafarroa osoan zubiak eduki zuen garrantziak deitu dit arreta» zioen Latasak. «Errege Kontseiluak 1551n agindu zuen osorik harrizkoa izan litzatekeen zubia egiteko, ordurarte egurrezko zubia ordezkatzuz; azken 30 urtetan harrizko hanka zuen. 1552an egin zen eraikuntza esleitzeko enkantea, baina hainbat arrazoi tarteko, hamar urteko beranduago egin zen», aipatu zuen.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranbxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdosain, Maitane
Maritorea, Aranbxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oleiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbizuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte
2020ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 39€
Leitza 28€
Hego Euskal Herria 47€
Ipar Euskal Herria, Europa 86€
Amerika eta Australia 139€





KOLABORAZIOAK

JOSE RAMON AMOROS OSKOZ

Ehizaren pribilegioak

Pandemiarengatik bizitzen ari garen krisi sanitario honetan, Nafarroako Ehiza Federazioak ehiza jarduera ezinbestekoa izendatzea eskatu dio gobernuari, hau da, ehiztariek ez dezatela trabarik izan alde batetik bertzera mugitzeko. Adibide gisa argudiatu dute Erriberan untxi plaga omen dela eta bertze probintzietan bizi diren ehiztarien laguntza behar dutela. Beharbada ez dute jakinen untxien populazioa kontrolatzeko neurririk hoberena harrapariak izatea dela, bertzeak bertze, hontzak, arranoak, azeriak, basakatuak edo katamotzak. Jakin nahi nuke zer neurriak hartu ditu federazioak animalia harrapari hauek babesteko.

Gure inguruan ere antzeko eskaerak aditu ditugu. Zonaldeko udal batzuek ehiza aprobetxamenduak enkantera ateratzen dituzte. Bertako udal batek Nafarroako Udal Federazioari laguntza eskatu dio erranez Nafarroako mugak ixteagatik Gipuzkoako ehiztariek ezin dutela etorri eta dirua itzuli egin beharko diela.

Zuri zer iruditzen zaizu hemen eta gaur egun, ehiza jarduera ezinbertzekoa dela eskatzea? Hori onartzea ehizari bertze pribilegio bat ematea izanen litzateke.

Hona, nire ustez, ehizaren pribilegio batzuk:

1. Urte guztian ehizatzen ahal da. Denboraldi orokorra abuztuaren 15etik otsailaren 28ra arte luzatzen da, hau da, sei

hilabete eta erdi. Gainera bakarkako zelata-ehizan, espezie batzuk urte guztian (Nafarroako Gobernua, *Ehiza-arauek 2020-2021*).

2. Herri gehienetan ehiza-barrutiak herriko lur guztiak hartzen ditu, partikularrak

barne. Espainian lurraren % 87 ehiza barrutia da (*Jara y sedal* aldizkaria). Nafarroan % 93 (*Espainiako Ingurugiro Ministerioa*).

3. Ehiztariak pista eta mendi zoko guztietan sartzan ahal dira euren ibilgailuekin eta zakurrekin. Pista horietako batzuetan ehiztari ez garenok ezin gara sartu.

4. Kalterik egiten ez duten animaliak hiltzeko eskubidea.

5. Granjetan hazitako animaliak askatzea gero ehizan aritzeko. Eta zergatik pribilegio hauek?

1. Boteredun pertsona aunitz ehiztariak dira eta.

2. Aunitz baitira, 848.000 lizentzia estatu osoan, 25.583

Nafarroan (*Ingurugiro Ministerioa*).

3. Diru aunitz mugitzen omen baitute, bortz mila milioi euroko estimazioa estatu osoan (*Artemisan fundación*).

4. Gizartearen gehiengoari berdin zaiolakoz.

Interesgarria da Nafarroako Ehiza Federazioak aurtun argitaratu duen *Propuestas de la PAC post 2020* dokumentua. # *La Caza También Vota* leloa azaltzen du eta alderdi politikoei konpromisoa eskatzen die hainbat helbururekin bat egiteko. Horietako bat hau da: eskoletako Hezkuntza Programazioetan ehiza jarduerak sartzea (*Nafarroako Ehiza Federazioaren webgunea*).

Eta non daude ehiztari ez garenon eskubideak? Naturazaleak, natura maitatzen dugunak, mendian lasai ibili nahi dugunak, errespetuz, landareak eta animaliak behatzen, ... Gaia bertze aldi baterako utziko dugu.



ESTEBE APEZETXE MURUA

Lerro artean

Duela egun batzuk, ETBn eguerdiko albistegia ikusten ari nintzela, atentzioa deitu zidaten bi berrik. Lehendabizikoan, aurkezleak aipatu zuen Nizan «islamiar batek labanaz eraso terrorista burutu» zuela. Handik minutu gutxi batzuetara, AEBetako hauteskundeez ari zirelarik, irudietan Donald Trump hautagaiaren jarraitzaile batek «ezin dugu onartu beltzek kaleak hartzerik» adierazi ondotik, «nabaria da giroan hiritarren artean dagoen tentsioa igotzen ari dela» batekin akitu zuen bere hitz hartzea bertako korrespontsalak.

Itxura batean berri arruntak iduri dute biek ala biek, baina kontatzeko moduari erreparatzen badiogu segidan ohartuko gara lerro artean gordetzen dutenaz. Lehendabizikoa aditzean, nire baitan hausnarketetan galdu nintzen albistearen jarraipenari kasu handiegirik egin gabe. «Ez al zen bada berria berdin ulertuko kazetari batzuek hain maite duten 'terrorista' ohartxo gibeletik ezarri gabe?» galde egin nion neure buruari. Horretan nintzela etorri zen asteon aipatu dudana bigarrena eta hausnarketak haserreari pasatu zion lekukoa. Gazte tunisiarraren erasoarekin egin zuten konnotazioaren gisakoen arrastorik ere ez.

Bistan da terrorismo hitzari ematen zaion erabilerak neutrale-tik gutxi duela. Euskaldunok ongi aski ikasi dugu hori urte luzee-tan zehar, eta oraindik orain ere hitzetik hortzera darabilten

kontzeptua da. Edozein

disidentzia edo mugimendu isilarazi nahi izan da etiketa beraren azpian atxilotetak eta torturak moztortuz. Kontzep-tu ideologikoa da hortaz, egungo sistemen legitimazioan oinarritua eta edozein aurkari

«HEIN BATEAN ENTZUTEN ETA IKUSTEN DUGUNA GARA»

politikori gaitzesgarri gisara aplikatzen zaiona. Berdin da arerio hori euskalduna, kurdua, korsikarra edo arabiarra izan. Ez naiz ni arabiarren borrokaren legitimazioan sartuko, baina garbi dago ETB eta enparauek ez dituztela berdin izendatzen mende-baldeko herrialdeek euren interes ekonomiko eta politikoak defendatzeko bertze herrialdeetan eragiten dituzten gatazka eta sarraskiak. Ongiaren eta gaizkiaren dominak aspaldi paratuta daude, antza.

Horrelako berrien aitzinean ETBk lehengo lepotik burua bal-din badu ere, aise kezkarriagoa iruditu zait bigarren berrian ultraeskuindarraren esaldi xenofoboaren aitzinean kazetariak hartutako jarrera epela. Dirudienez beltzak karriketatik ateratzearen beharraz egindako adierazpen arrazistak jendartearen baitan zegoen tentsioa bertzerik ez zion ekarri burura kazetaria-ri. Beharbada kasualitatea izaten ahal da, baina kausalitatetik gehiago ez ote duen pentsatzen jarria nago ni.

Gisa honetako balorazioak eguneroko ogia dira hainbat kanaletako informatiboetan, eta nola ez ETBkoetan ere bai. Gauzak erratetik erratera alde ederra dago eta horrek iritzi publikoan duen eragina ikaragarria da. Azken finean, hein batean entzuten eta ikusten duguna gara. Beraz, uste dut Euskal Herriaren komunitate politikoa eratzen laguntzekotan, bertze modu batera eman behar dituela mezuak telebista publikoak. Entzuten eta ikusten duguna ez izateko.

11 GALDERA LABUR

MIKEL ARISTETA LEITZAR MOTORZALEA

«Txikitatik heldu zait zaletasuna, berezkoa dudala esan nezake»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Pertsona alaia eta irekia.

Zein dira zure zaletasunak?

Motorra eta gorpila dituen makina guztiak. Egun rallyetan parte hartzen ez badut ere, motorshow eta zirkuituetan parte hartzen dugu nere kopilotuak eta biok.

Nondik datorkizu gurpilduneki-ko zaletasuna?

Txikitatik heldu zait motorra-rekiko zaletasuna, berezkoa dudala esan nezake. Gainera, etxean beti ezagutu dut osaba batzuen bidez baita herriko zenbait lagunekin ere. Honetaz gain, neska-lagunak eta biok zaletasun hau partekatzen dugu.

Zure kotxeekiko afizioa lanbide ere baduzu?

Bai. Duela bost urte herrian tailer propioa ireki nuen.

Zer eskaintzen dizute kotxeek bertze zaletasunek ez dutena?

Hauek prestatzea erronka bat da eta ibiltzean adrenalina asko erretzen dut.

Zaletasun garestia omen da...

Zaletasun garestia da, batez ere, kotxean egin beharreko moldaketak egiteko norberak egin beharrean, tailer batera eramaten bada.

Bakarrik edo pilotukide batekin gidatzea nahiago duzu?

Orokorrean kopilotuarekin gidatzen dut. Kasu honetan, nire kopilotua nire bikotekidea da, eta berarekin gidatzeak konfidantza handia ematen dit.

Zein da egin duzun lasterketa politena?



Gehien gustatu zaidan zirkuitua Kotarr izan da. Zirkuitu honek denbora gutxian kurba asko eskaintzen dizkizu eta zure gidatzeko gaitasuna proban jartzen du.

Leitza aldean kotxe zaletasun handia dago?

Urteotan aldaketa handia ikusi ahal izan dut. Garai batean zaletasun handia zegoen, gaur egun, aldiz, jende gutxik partekatzen dugu kotxeekiko zaletasuna.

Rallyetan laguntzaile edo pilotu gisa aritzea, zer duzu nahiago?

Bietan aritu izan naiz eta oso gauza ezberdinak eskaintzen dizkizu. Laguntzaile aritzean beste pilotuek dituzten abileziak ikusteko aukera gehiago duzu. Aldiz, zu gidari zarenean zirkuitua zure esku eta gorputzean sentitzeko aukera duzu.

Amets bat?

Japonian Drift egitea da nire ametsik handiena.

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Nafarroan mediku izateko: alemana bai, euskara ez

JOSEBA OTANO VILLANUEVA

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Fakultatibo espezialista izateko 283 lanpostu betetzeko deialdia egin du Osasunbideak (2020ko urriaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Osasunbideak beti baloratzen du hizkuntzak bere lan deialdietan: aurreko gobernuek alemana, frantsesa eta ingelesa balioesten zituzten Nafarroa guztian, eta ez euskara legeak 'eremu ez-euskaldun' deitutakoan. Gobernu honek beste pauso bat eman du, eta eremu mistoan ere ez du euskara baloratzen. Eta, gainera, deialdi honetako lanpostu bakar batek ere ez du destinoa eremu euskaldunean. Beraz, ez da euskara baloratu.

Osasunbidearen web-orriak dio «epaietan xedatutakoa betez» egiten dutela hori, baina ez da egia: Nafarroako Kontseiluak, Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta organo gorenak, interpretatu ditu epaileek euskarari buruz emandako epaiak, eta honako hauek esan ditu:

«Ez da arrazoirik ikusten frantsesa edo ingelesa baloratzeko, adibidez, eta ez euskara, zeina, gainera, 'Nafarroako berezko hizkuntza bat' baita, eta herritar guztiek baitute hizkuntza hori jakiteko eta erabiltzeko eskubidea». «Gainera, Europako hizkuntza bakar bat ere ez dago posizio horretan». (Nafarroako Kontseiluaren 7/2020 irizpena, otsailaren 24koa, 2/2020 espediente).

Eta deialdian ez da esaten lanpostu horietako bakar bat ere elebiduna

denik. Beraz, euskara ez da ez betebeharra, ez merezimendua ere. Alemanek suerte handiagoa dute Osasunbidean artatuak izateko.


Txibite lehendakariak, Nafarroaren egoerari buruz egindako hitzaldian, esan zuen: «Denok gara nafarrak, eta denok egiten dugu Nafarroa». Eta: «nahi dugu jendarte parekoagoa, pluraltasuna integratzen duena eta dibertsitatea aitortzen». Baina argi dago euskara eta Nafarroako euskaldunak traba garela harentzat.

Zaila da ikustea Gobernu euskarafobiko horretan daudela Geroa Bai eta Ahal Dugu, eta kanpotik sostengua ematen diotela EH Bilduk eta Izquierda-Ezkerrak.

BOTA BERTSOA

ERIKA
LAGOMA
POMBAR

LESAKAKO
BERTSOLARIA



Hemengo eta hango

Doinua: Agurtzen ditut maiteminakin

*Hemezortziak bete orduko
etxetik kanpora txango
sustraiak erdi biluzik eta
motxila bat ta bi zango
Salamancatik Iruñeara
berdin Gazteiz zein Durango
pertsona sarri senti daiteke
ez hemengo ta ez hango (bir.)*

*Urteak di-da pasatzen dira
dena doa increscendo
oharkabeen joaten dira
armairutik noiz irtengo
asmatuz gero mosaikoaren
piezetan zein den hurrengo
Azkeneko sentitzen zara
Bai hango ta bai hemengo (bir.)*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus

948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Kalko ustelak

***‘EZ ZAIT GEHIEGI INTERESATZEN’ ala ‘EZ ZAIT AUNITZ INTERESATZEN’?**

-egi dela eta, maiz kalko oker bat egiten da, Euskaltzaindiaren hitzetan, «azken urteotan aunitz ugalduta dena». Hona hemen adibide batzuk:

Hona hemen adibide batzuk:

***Ez zait gehiegi interesatzen > Ez zait aunitz/asko interesatzen**

***Ez dut kezka gehiegi(rik) horretaz > Ez dut kezka handirik horretaz (kezkaren neurria) edo Ez dut kezka aunitzik/askorik horretaz (kezken kopurua).**

***Ez dakit gehiegi > Ez dakit asko/aunitz(ik).**

***Ez dut gogo gehiegi > Ez dut gogo handirik / gogo aunitzik/askorik.**

***Ez da ondoegi moldatzen > Ez da ondo/ongi moldatzen.**

***Ez du hurbilegitik jarraitu > Ez du oso/hagitz/arras hurbilegitik jarraitu.**

***Ez zuen aldaketa handiegirik ekarri > Ez zuen aldaketa handirik ekarri.**

Nola erran?

AITZIN ≠ ANTZINA

Bi hitz dira *aitzin* eta *antzina*.

***Aitzin** hitzak (ez ***aintzin**) aurea edo aurretik erran nahi du.

-Etxe txikitxo aitzin-zuri bat.

-Heldu aitzin.

Antzina, berriz, (ez ***aintzina**) aspaldi adierazteko da.

-Antzina gertatutako gauzak.

-Antzinatek datorren ohitura.

Aitzin da erroa honako hauetan: aitzineko (***aintzineko**), aitzinalde (***aintzinalde**), aitzinasmo (***aintzinasmu**), aitzindari (***aintzindari**)...

Antzina, aldiz, honako hauetan: antzinako, antzinatasun, antzinate... (***aintzinako**, ***aintzinatasun**, ***aintzinate**...).

Oharra: *aurreraren* baliokideak *aitziner* eta *aitzina* dira, ez *aitzin*.

-*Gaurtik aitzin horiz beztituko naiz > Gaurtik aitzinera/aitzina horiz beztituko naiz.

Hizki-zopa

BERATZ, BELAXKA, BERA, BIGUN, GURI...

Zein da zuk gehien erabiltzen duzuna?

Hieroglifikoa

Asmatu al zenuen aitzineko aldizkarian Euskararen Txokoa paratu genuen hieroglifikoa?

Ohatze da erantzuna.

M F V H H S O W S T B
Q K B O V U X U L X E
T T Y U R B G B F R R
U O O Z F R N G V B A
N K J V P S W I P E T
C G G F S E A U D R Z
O F U B E L A X K A N
D Q R C B I G U N X U
U B I V E R U I W J K
W R J G X D O L W W O
F H R K Y P B I Y S L



Audio ikasketak egiten ari da Ion Mayordomo. UTZITAKOIA

«Jendeak gure diskoari buruz duen iritzia aditzeko gogotsu gaude»

ION MAYORDOMO SOBRINO PLEURA MUSIKA TALDEKO GITARRA-JOTZAILEA

Musika aditzeko, jotzeko eta sortzeko grina handia du Ion Mayordomok, baita Pleura taldeko gainerako musikariek ere. Horri tiraka, azaro hasmentan 'Bakarrilketa' diskoa plazaratu zuten

N. BAZTERRIKA | ELIZONDO

Musika eskolan ikasitakoari Olaia Intziarterekin batera osatutako Lamia taldean eman zion segida Ion Mayordomok (Elizondo, 2000). Partiturak irakurri eta interpretatzeaz haraindi, sormenari atea ireki zizkion bikoteak. Gerora, ahots eta gitarra doinuak aski ez eta tresna eta baliabide gehiagoren bila jo zuten eta 2018an Pleura taldea sortu zuten. Folk estiloa utzi eta rock-metalean murgilduta, *Bakarrilketa* lana plazaratu berri dute. Estatu Batuetako Takoma irratia, rock alternatiboaren barne, 2020ko disko hoberena izateko hautagaien barne sartu du eta bozketa martxan da. Diskoa

zabaldu eta kontzertuak hitzartu bitartean, musika lantzen, gozatzen eta trebatzen segituko du taldeak.

Zure egunerokoaren zati handi bat musikak hartzen du...

Bai, Pleura taldeko gitarra-jotzailea naiz eta Iruñean audio ikasketak egiten ari naiz, goi mailako ziklo bat. Bata bertzearekin ongi uztartzen dira. Ikasketek nahasketak egiteko balio didate. Musikari bezala ona da

«'BAKARRILKETA' DISKOAK KRITIKA SOZIALA DU ARDATZ»

niretako, bertze ikuspuntu bat ematen didalako.

Noiztik duzu musikarekiko lotura hori?

Ttikitan solfeoa ikasten hasi nintzen, ikastolako lagunekin batera. Sei urterekin hasi nintzen, saxofoia jotzen. Saxofoia eta solfeoa akitu nituelarik, gitarrarekin hasi nintzen. Betidanik gitarra jo nahi izan nuen, gustuko nuelako. Duela bospasei urte jotzen hasi nintzen.

«JENDEA GAZTE SORTZAILEAK LAGUNTZEKO PREST DAGO»

Hasieran Olaia Intziarterekin batera Lamia taldea sortu zenuen... Nola sortu zen Lamia?

Olaia Intziarterekin elkartu eta entseiatzen hasi nintzen. Aspalditik ezagutzen genuen elkar, zazpi-zortzi urtetatik musika eskolara elkarrekin joaten baitakinen. Berak pianoa jotzen zuen eta biek batera gitarra bat erosi genuen, jotzen ikasteko asmoz. Momentu horretan, konposatzeko eta bertsioak egiteko elkartzan hasi ginen eta hortik sortu zen Lamia.

Nola oroitzen dituzu hasierako pausoak?

Elkarrekin kontzerturen bat eman genuen, baina arraz inprobisatua izan zen. Dena akorde batzuen gainean jotzen genuen, eta horien gainean sortzen saiatzen ginen. Nahiko libreki aritzen ginen, denborapastat hartua genuen eta ez genuen talde bat eratzeko helbururik. Hala ere, oroitzapen ona dut, inprobisazioa landu genuelako. Musika eskolan bereziki partiturak irakurtzen ikasten da eta ordu horiek konposizio aldetik onuragarriak izan ziren. Gustua hartu genion eta gehiago jotzen hasi ginen. Pixkanaka, taldea haunditu nahi izan genuen eta, tresna eta baliabide gehiago izateko, Pleura sortu genuen.

Lamia taldearen segida al da Pleura?

Hasiera batean ez genuen argi segida izan behar zuen edo ez... Orain nahiko argi dugu. Esentzia hor dagoen arren, ez du loturarik. Lautik bi Lamia taldekoak gara baina ez du zerikusi haundirik. Lamia folk estiloko taldea zen eta hau rock-metal estilokoa da.

Nola elkartu zinen?

Unai Urrozi deitu nion, hirurok hutsetik sortzen hasi ginen eta beranduago baxu-jolea sartu zen. Bertze batzuekin proba egin genuen, baina denbora faltagatik utzi zuten eta Julen Ceballos hasi zen. Lehenbiziko kontzertua 2019an eman genuen Elizondon egin zen Borobileko ertzetik jaialdian. Jaialdiko kanta bera ere guk

egin genuen. Hasiera polita izan zen.

Lehenbiziko diskoa argitaratu berri duzue...

Bai. Hasieratik gure kantak egiten hasi ginenez, diskoa grabatzea pentsatua genuen. 13-14 kanta genituela ikusi genuenean—beti baten bat gehiago behar izaten baita—pausoa emateko momentua zelakoan geunden. Gai batean zentratu eta forma emateari ekin genion. **'Bakarrilketa'.** Nondik heldu da diskoaren izenburua?

Diskoak hainbat arlotako kritika soziala du ardatz, pertsonarengan duen eragina... Hor-tik bakarrizketa eta hilketa hitzak harilkatu genituen.

Zer da entzuleak diskoan harra-patuko duena?

Trantsizio aunitzen artean, gitarren eta ahotsen arteko lotura. Musikari dagokionez, gogorretik lasairako aldaketak nabarmenduko nituzke. Letrei dagokionez, berriz, musikari eta sortzaile bezala gizarteari egiten diogun kritika. Osasun mentalari dagokionez dauden arazoak, gizarteak eragindako presioa, egoera politikoa... lantzen ditugu, egunerokoan presente izan arren, eta beharrezko garrantzirik ez dutenak. Letra guztiak euskaraz egin ditugu. Argi genuen euskaraz egin nahi genuela.

Noiz hasi zineten grabaketekin?

2019an, Eguberrietan. Berez martxo-apirilean argitaratzea pentsatua genuen baina koronabirusagatik gibelatu egin genuen. Ez zuen zentzurik diskoa ateratzeko kontzerturik ez jotzeko. Orain egoera bertsuan gaude, ez dut uste kontzertu aunitzik izanen dugunik, baten bat izanez gero kontent. Konposatzen hasi gara, talde gisa garapen bat izan dugu eta ia urtebete diskoarekin bueltaka ibili ondotik, momentu ona dela uste dugu. Ezin dugu gehiago gibelatu, jendeak gure lana aditzeko gogotsu gaude. Euren iritzia jakin nahi dugu.

Tartean Gaztea Maketa Lehiaketan parte hartu zenuten eta hori entzuleengana ailegatzeko baliaga-



Pleura musika taldeak euren lehenbiziko lana plazaratu berri du. UTZITAKOIA

rria izan da. Zer nolako harrera izan zuen kantak?

Euskal Herrian jendeari eging-dako lanaren berri emateko eta ikusarazteko aukera ona da eta hori baliatu nahi izan genuen. Irabazi bagenu hobe baina... Diskoa prest genuen ordurako, eta etenaldi gisako momentua zenez, lehiaketan izena eman genuen. Harrera ona izan zuen. Orain arte diskoak ere hala izan du. Egia erran kontent gaude.

Prozesu horretan osasun egoera ez duzue aldeko izan, baina herriarren babesa sumatu duzuela nabarmendu duzue...

Jendeak eskertzen duela iruditzen zait. Gazte sortzaileak laguntzeko prest daude. Eskualdean ez dugu jotzeko arazorik izan, beti izan dugu aukera eta, zentzu horretan, herriko eta inguruko jendeak lagundu digulakoan nago.

Zenbat emanaldi galdu dituzue koronabirusaren ondorioz?

Lauzpabortz kontzertu genituen hitzartuak... Hala ere, diskoa ateratzeko prestatzen aritu gara eta... gaitz erdi! Denbora hori diskoa lantzeko baliatu dugu. **Nola egin diozue aurre grabaketa kostuei?**

Kontzertuetan irabazi dugun diruarekin eta norbere sakeletik. Guretzat inbertsioa izan da, horren aldeko apustua egin dugu. Gustura egin dugu, gure pasioa da eta nahi dugulako egiten dugu, baina egia da gas-tu hori egiteak eta astero entseatzeko biltzea esfortzu eta konpromiso handia dela...

Berandu baina ailegatu da diskoa... Noiz plazaratu zenuten?

Azaroaren 3an. Atera aitzinetik sare sozialen bidez eta e-mail-lez Euskal Herriko hainbat txokotatik eskatzen hasi ziren. Egia erran erantzun ona izan du. Tartean, Valentziako Maldito Records disketxearekin lanean hasi ginen eta ikusgarritasuna lortu dugu, entzule gehiagorengana ailegatzeko bide eman digu. Kontent gaude.


Aitzinera begira zein da zuen asmoa?

Momentuz diskoa atera dugu eta kantak sortzen segitzen dugu. Ea egoera hobetu, kontzertuak hasi eta sektorea hobetzen den!

'Bakarrilketa' diskoa

Olaia Intziarte oronoz-mugairiarrak, Unai Urroz doneztebarrak, Julien Ceballos leitzarrak eta Ion Mayor-domo elizondorak plazaraturiko lehenbiziko diskoa da *Bakarrilketa*.

Gai sozialak ardatz dituzten hamaikakantekosatzen dute ukitu metaleroa eta bluseroa duen rock estiloko lana: 'Hasiera', 'Nun zabiltza', 'Errainua solte', 'Grixak', 'Bakarrilketa II', '+/-', 'Larru onaren truke', 'Aitzinago zaude', 'Soke-tan', 'Deathcrush' eta 'Lokaleko argiak'. Kantaz



kanta musika askatasuna, bakardadea, komunikazioa, sormena eta aunitzez gehiago dela erakutsi dute. YouTube kanalean eta plata-forma digital guztietan aditu daiteke.



2011tik 2020ko irailera bitarte genero indarkeriari lotutako 141 salaketa aurkeztu dituzte eskualdean.

«Deusetarako ez dudala balio pentsarazi dit»

Urtetan bikotekidearengandik tratatu txar psikikoak jasan dituen eskualdeko emakumezko batek bere testigantza kontatu dio TTIPI-TTAPARI. Kanpotik begiak ireki dizkioten arte normaltzat hartu du gertatu zaiona, eta poliki-poliki sendatzen ari den arren, zauria ez da erabat itxi, beldurrak bere baitan dirau

G. PIKABEA

«Inork ez daki zenbateraino deuseztatzen ahal zaituzten kanpoko batek begiak irekitzen dizkizun arte. Eutsi eta eutsi egiten duzu, berandu izan arte, eta deusetarako balio ez duzula pentsatu eta inork maiteko ez zaituela sentitzeraino». Anek –asmatutako izena da– hitz horiekin azaldu du 20 urtez bere bikotekidea izan zenarengandik jaso duen tratua. Ez du izenik eman nahi izan, baina TTIPI-TTAPAK hartzen duen eskualdekoa da, eta gure herrietako batean sufritu ditu tratatu txar psikologikoak, gure eskualdekoa den gizonezko batengandik. Ez da urrutiko kontua, ezta bakarra ere.

Badu zer kontatua eta badu gertatu zaiona azaleratzeko gogo, berak jasandakoa ez diolako inori desio. Hori bai,

aurpegia eman gabe kontatu nahi du, oraindik beldurra ez baitzaio desagertu: salaketa aurkezteak sortzen dion beldurra, haurrak mintzeko beldurra, bakarrik gelditzeko beldurra... Eta bikotekide ohiak egin diezaiokeenaren beldurra.

Urtetan sufritu eta jasan ditu tratatu txar psikikoak. Ez daki, ordea, noiz eta nola hasi ziren, «orain, 20 urte beranduago, ohartu naizelako zeregin didan, kanpotik begiak ireki dizkidatenean». Gogoan ditu elkarrekin hasi zirenean zenbait seinale izan zirela, «alkohola

tartean izandako mozkor txar haien ondorioak, adibidez». Anek, ordea, «arrunt maitemindua» izaki, «pasatzen utzi» zituen. Gerora, «zerbait poto-loa» gertatu zela aitortu digu: «alkoholaren eraginpean eta jendearen aitzinean bulkada bat eman zidan. Agresibitatea agertu zitzaion, parean zituen gauzak puskatzen hasi baitzen». Baina bere horretan gelditu zen kontua: «bertze herri batetik etorria nintzen, eta nora joan behar nuen? Nola itzuliko nintzen etxera porrot horrekin? A zer lotsa!», «Ezin» zuela «ino-

«20 URTEREN ONDOTIK OHARTU NAIZ ZER EGIN DIDAN»

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

«ETXETIK KANPO IZATEN AHAL ZEN JATORRENA ZEN»

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

ra» joan sentitu zuen, «eta maite nuen», dio.

Haurra jaio zenean «ttikiari ez zion kasurik egin», eta bere ustez, «hemengo heziketa marxistaren» bertze adibide bat da hori: «emakumezkoa haurrekin eta gizonezkoa lanean...». Urte batzuen buruan bigarren umea etorri zen, eta «hasieran kasu egin bazion ere, eroso jarri zen eta bere bidea hartu zuen. Ninintzen etxe barrenean eta kanpoan lanean ari nintzena eta haurrekin zegoena. Bere lehentasuna lana zen, edo hori zen orduan nik uste nuen. Denborarekin ohartu naiz igual ez zela beti lanean aritzen...».

«Ez duzu deusetarako balio»

«Etxetik kanpo izaten ahal zen gizonezkoak jatorrena» zen hark min handia egin dio Aneri «etxe barrenean, *Kalean uso eta etxean* otso erranak dioen bezala». Etxean eta etxetik kanpo lanean aritu, seme-alabez arduratu eta «ez dudala deusegiten» edo «ez dudala deusetarako balio» aditu izan du azkarki aldiz, «lanez aldatutakoan, ez nuela hartarako balio» bota izan dio. Etxean, «seme-alabekin edo bertze edozein arazo» sortutakoan «erruduna beti ni naizela» adierazi izan dio, «igual dio zer».

Gehiago ere bai: «familia elkarrekin egoteko helburu hutsarekin aste-hondarrak kanpora antolatzen banituen, ez nintzela behin ere konforme» leporatu izan dio eta «nire izateko manerarekin ere sartu izan da, bertzeak bertze, desatsegina naizela» aurpegiratze-ko. «Haurrak parkean egoten zirenean kafea hartzea» ere bazen leporatzeko arrazoi. «Zerbait erosi behar bazen azken beti ni izaten nintzen eta etxerako zerbait erosi edo Egu-berrietan haurrei kapritxoren bat egiten banien, zertarako erosi nuen edo merkeagorik ez ote zegoen» erraten zion. Bertze herri batetik etorria izanda, «bakarrik nengoela eta inor ez nuela ere aunitzetan errepikatu izan dit...».

Genero indarkeriaren salaketak eskualdean

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020*	GUZTIRA
BAZTAN	10	1	1	5	4	5	8	6	8	8*	56
LEITZA	2	2	1	2	5	1	2	2	4	1*	22
LESAKA	1	5	0	0	2	3	0	1	2	2*	16
BERA	0	1	2	1	1	2	1	0	2	3*	13
DONEZTEBE	0	3	0	0	1	0	1	0	3	5*	13
BERTIZARANA	0	1	2	1	0	1	0	1	0	1*	7
URDAZUBI	2	0	0	0	1	1	1	1	0	0*	6
GOIZUETA	0	0	0	0	0	1	1	1	0	0*	3
ETXALAR	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2*	3
ARANO	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0*	2
GUZTIRA	15	13	7	9	14	15	14	12	20	22	141

OHARRA: 2020KO DATUAK IRAILERA BITARTEKOAK DIRA. ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA.

Banatzerakoan, berriz, «ni baino gehiago irabazten zuela, eta elkarrekin egina genuen etxetik ez zitzaidala deus tokatzen erran zidan». Baita «ni nintzela bizitza izorratzen ari nintzaiona» ere. «Eta ni isilik». Sexuarekin ere «aunitz eta aunitzetan zanpatu» izan duela aitortu digu: «ez zela nahikoa erran izan dit, ez niola behar zuten sexua ematen...».

Anek jasan duena psikikoa izan da eta fisikoz galdetuta, «ez nau ukitu», erantzun du. «Behatza sudur puntara hurbildu izan dit, baina ez nau ukitu». Bere «agresibitatea» «ahoz» eta bertzelako ekintzen bitartez erakutsi omen du: «objektuak hautsiz edo ostikoak emanez...».

Zerrenda luzea du Anek, baina hori guztia «normaltasunaren barrenean» ikusi eta sentitu du 20 urtez, «ez naiz konturatu erabat zanpatu nauela, etengabe *pan-pan-pan* aritu dela». «Erabat maiteminduta» zegoela dio eta «emozionalki bere menpe» bizi izan dela, «begiak benda batekin tapatuak» izanen balitu bezala, edo berak dioen bezala, «itsututa».

Banaketa «gogorra»

Duela zenbait urte bereizi ziren, eta nola diren kontuak, dibortzioa eskatu zuena senarra izan

zen, «bertze emakumezko bat tartean zegoelako». Izugarriko atsekabea sentitu omen zuen: «nire erruz dibortziatu»-ko ginela leporatu zidan eta nik aldatuko nintzela erran nion. Urte batez hola ibili nintzen, ezin da imajinatu noraino umildu nintzen. Edozer egin izanen nuen berarekin segitzeko, dena jasan bera ez haserretzeko».

Dibortzioa sinatu zuten eguna ere barrenean ongi iltzatua du: «dibortzioa sinatzen ez banuen, eginen nuen azken gauza huraxe izanen zela erranez mehatxatu ninduen. Izugarriko gorrotoa sumatu nuen bere hitzetan eta ni, berriz, noizbait harreman normala izanen genuelako itxaropenez...».

Bereizi ondorengo dei amaigabeak

Dibortzioaren ondotik, dena «hutsetik» hasi behar izan zuen: «lau sosekin, etxetik alde egin nuen». Dibortzioa «aho batez adostu» zutela aitortu digu, eta

«nire beldurragatik» senarrak errandako guztia onartu omen zuen: «igual zitzaidan zortzi edo laurogei sosekin atera handik. Une hartan dena bukatzea nahi nuen, eta berdin zitzaidan nola. Errandako guztiari men egin nion». Orain «urrikitzen» da orduan hartutako erabakiaz, baina beldurak ez zion gehiago eman eta «etxebizitza baterako dirurik gabe atera nintzen». Ia esku-hutsik eta gainera, «bakarrik. Bere gurasoak nire ama eta aitatzat nituen, baina orduan ohartu nintzen ezetz. Kuadrillan ere baztertu ninduten...». Herrian «seinalatua» ere sentitu zen: «bereizi ondotik, zenbaitzuek herrian agurra ukatu izan didate. Hasiara hartan, beheiti begira eta gordeka ibiltzen nintzen, ez nekielako berak zer kontatua zuen».

Ez zen hor bukatu Aneren sufrimendua. Nahiz eta gizonetzkoa izan zen dibortzioa eskatu zuena eta bertze emakume batekin zebilen, «bere

erruz bereizi ginela oroitarazteko noiznahi deitzen zidan, ordu bateko eta biko deiak izaten ziren. Eta lagunak eta familiakoek deia ez hartzeko edo mozteko erraten zidaten arren, ez nintzen hori egiteko gai. Ez dakit menpekotasun emozionalagatik ote zen edo zergatik, baina ezin izaten nuen telefonoa hartu gabe gelditu». Dei horien bitartez, Aneren ustez, «bere burua justifikatu nahi zuen. Orain konturatu naiz horrelako pertsonak emozionalki analfabeto hutsak direla, ez dago eurek bezain hutsik dagoen deus ere ez, baina ez dute itxura hori ematen, eta hemen itxurari begiratzen diogunez eta bera gizartean ongi ikusia denez...».

Begiak zabalik

«Lagunek eta familiak aunitzetan» ohartarazi omen zioten bikotekidearengandik jasotzen zuen tratua «ez zela normala, faltsua zela...». Baina «nik maitenuenez, mindu egiten nintzen halakoak adituta». Azkenean seme-alabetako bati «niri ematen zidan tratua ematen hasi zitzaionean» erran zuen hori onartezina zela. Horixe izan zen «alarma piztu» ziona. «Seme-alabetako batek bolada txarra izan zuen eta es →

«DIBORTZIOAN BELDURRAGATIK MEN EGIN NION»

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

«MAITE NUEN ETA DENA ONARTU NION»

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

Zenbait datu

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak TIPI-TTAPari emandako datuen arabera, 2011tik 2020ko irailera bitarte genero indarkeria lotuta 141 salaketa aurkeztu dituzte eskualdean. Datu horietatik hainbat ondorio atera daitezke.

Bereziki eraso fisikoak eta psikikoak

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak utzitako datuetan ageri denez, aurkeztu diren salaketa gehienetan biktimek **eraso fisikoak eta psikikoak** jasan dituzte. Kasuen **%49,7** dira. Psikikoak jasan dituztenak %22 dira; urrutze agindua urratzeagatik aurkeztu dituzten salaketak %14,8 dira eta sexu erasoak jasan dutenak %10,6. Gainerakoak zehaztu gabeko erasoak dira.

%49,7
eraso fisikoak
eta psikikoak
izan dira

Biktima gazteak

- 30 urtez beheikoak dira salaketa aurkeztu dutenen %42,6. Adin-tarteei erreparatuz, **biktima gehienek 21 eta 30 urte bitartean** dituzte, salaketa aurkeztu dutenen %30,5. Horren ondotik 31-40 urtekoak daude (%26,2); 41-50 urteen artean %22,7 dira; 20 urtez azpikoak %12,1; 61 urtetik goitikoak %5,7 eta 51-60 urtekoak %2,8.

21-30 urte
Biktimen
%30,5
adin tarte
horretakoa da

Erasotzaile gehienak 30 urtetik goitikoak

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak emandako datuen arabera, eskualdean izan diren salaketa kasu gehienetan, **erasotzaileak 31 eta 40 urte bitartekoak** izan dira (%36,2); 41-50 urtekoak %19,1 dira; 21-30 urtekoak %17,7; 51-60 urtekoak %12,8; 20 urtez azpikoak %7,8 eta 61 urtetik goitikoak %2,8. Gainerakoetan, erasotzailearen adina ez dago zehaztua.

31-40 urte
Erasotzaileen
%36,5
adin tarte
horretakoa da

Erasotzaileen ia erdia bikotekidea

- Aurkeztutako salaketetan biktimen **%48,2k** adierazi du **erasoak bikotekidearengandik** jaso dituela. Kasuen %32,6 bikotekide-ohiek egindako erasoei dagokie. Biktimak eta erasotzaileen artean harremanik ez den kasuetan salaketa aurkeztu dutenak %9,2 dira eta familiakoengandik erasoak jasan dutela %6,4k salatu dute. Gainerakoak bertzelako harremanei lotutakoak dira, horietako bat etxe berean bizi denarengandik jasotako erasoak da.

%48,2
erasoa bikoteki-
dearengandik
jaso dutenak

Sexu erasoak bereziki gaztetxoei

- 2011z geroztik **15 sexu eraso** salatu dituzte eskualdean eta horietatik zortzi 20 urtez beheitikoek egindako salaketak dira: bi 16 urtekoak eta bertze bi 14 urtekoak, bana 4, 7, 12 eta 17 urtekoek egindakoak. 28 urteko hiru biktimek salatu dute sexu erasoak eskualdean, eta 21, 22, 34 eta 39 urtekoek bana.

15
Sexu eraso
salatu dituzte
2011z geroztik

Seme-alabak dituzten bikoteen artean erasoak

- Seme-alabak dituzten 31 familiatan salatu dute erasoak.

ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA.

—> kuetatik ihes egiten ari zitzaidala eta nola kudeatu ez nekiela sentitu nuenean gizar-te zerbitzuetara joan nintzen laguntza eske». Baina hori ere beldurrarekin: «laguntza eskatzea erabaki nuen, baina beldurrez egin nuen. Halako egoeretan beldurra da sentimendu nagusia, inork sinetsiko ez dizula edo erotzat hartuko zaituztela pentsatzen duzu».

Baina seme-alaba babesteko nahiak bultzatuta eman zuen pausoa eta hantxe konturatu zen seme-alaba ez zela etxeko biktima bakarra: «'ohartzen zara zu ere zer ari zaren jasaten?' galdetu zidaten gizarte zerbitzuetan». Nafarroako Gobernuako Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Lantaldearen (EAIV) programan sartzea proposatu zioten eta harriduraz hartu zuen. Areago, «minduta sentitu nintzen». Baina hartutako bideak «bertzeari laguntzeko nik sendatu behar nuela konturatzeko» bide eman zion.

Beldurragatik, salaketarik ez
Salaketa aurkezteko aukera «baztertua» du Anek, «haurren-gatik». «Nahiz eta nik aunitz sufritu dudana, haurrei beti erakutsi izan diet aita maitatu behar dutela. Badakite haseurretzen denean agresiboki jartzen dela baina beti aita mirets zezaten arduratu naiz». Gainera, «orain salaketa aurkeztuko banu, haurrak lur jota utziko nituzke eta nahiago dut saltsetan ez sartu». Ziurtzat jo du hori eginez gero, «herritik joan beharko nukeela» eta «ez dakit egoera horri aitzin egiteko gai izanen nintzatekeen, oraindik ez baitut indarrik».

Ez hori bakarrik: «tratu txar fisikoak, kolpeak, ubeldurak... ikusi egiten dira. Baina psikikoa ez da ikusten. Nola frogatu ez bada ikusten? Gainera dena ukatuko luke eta halako ziurtasunarekin solas egiten duenez, igual niri baino lehenagotik sinetsiko liokete berari».

Salaketaren aukerak «beldurra» ere sortzen dio, batetik,

«senar ohia haserretzeak sortzen didan beldurra» eta bertzetik, «haurrak nire kontra jartzeko beldurra»: «ditudan bakarrak seme-alabak dira eta haiek kontatuta dakit etengabe haurrei nire kontra mintzatzzen zaiela eta salaketa aurkeztuz gero, deskuidatuz gero, seme-alabak nire kontra jarriko lirateke». Hala ere, bere irudiko, «denborarekin ohar-tuko dira aita nolakoa den...».

Salaketarik ez aurkezteak, ordea, bertze ateak itxi dizkio: «laguntza psikologikoa ematen didate eta izugarri eskertzen dut, baina etxetik alde egin eta dena bakar-bakarrik hutsetik hasi behar izan dut. Nire diru-sarrerekin, soldata bakarrarekin eta lan finkorik gabe, ezin dut etxebizitza erosi eta gaur egungo alokairuen prezioarekin eta seme-alabez arduratzeko ez da nahikoa. Erraztasun edo laguntza ekonomikoak ongi etorriko litzaizkidak. Lanean ere kontziliazio kontua zail dago... Baina epailearen agindurik ez dudanez, ez dut laguntza ekonomikorik jasotzeko eskubiderik».

Beldurra parez pare

Urtetan «errudun» sentitu izan da, «senar ohia arduratu da ni horrela sentitzeaz». Gibelera begiratu «ez dakit zoriotsua izan naizen edo ez. Momentu hartan baietz uste nuen, baina orain ez dakit». Begiak zabaldu ditu baina «oraindik ere bikotekide ohiaren komentarioak irensten segitzen» du: «ez didate lehen adina min ematen baina haurrengandik ongi eraman behar dudala sentitzen dut». Aitortu digunez, «ez dut amorrurik sentitzen eta oraindik ere batzuetan goxo begiratzaren diot. Atera kontuak zenbateraino harrapatzen eta bereganatzen zaituzten». Baina argi utzi du ez duela bera buruan bizi nahi: «ederki izorratuko lidake oraindik bere falta sumatzen dudala sentitzeak».

«Beldurra» ere ez du bazterrerara utzia eta «ez naiz seguru sentitzen»: «haserretzeak sor-



Salaketa aurkeztu dutenen ia erdiak eraso fisikoak eta psikikoak jasan ditu, eta gehienak bikotekidearen aldetik.

dut beldur naiz, ez baitakit zer egiteko gai den. Ez dut uste ukituko nindukeenik baina badakit min handia egiten ahal didala».

Halere, ez du etsi, eta «zenbait egunetan ohatzetik zergatik jaiki behar dudan neure buruari galdetzen badiot ere, poliki-poliki sendatzen» ari dela aitortu digu, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Lantaldetik jasotzen duen laguntzari esker. Esker oneko hitzak ditu gizarte zerbitzuentzako ere, «aunitz lagundu» diotelako». Haiei esker hasi da indartzen, berak dioenez, «zauriak sendatzen» eta, bertzeak bertze, «aski da erraten lagundu didate»: «lehen ez bezala, orain, bere telefono-deiak behar denean mozteko gai naiz, edo hasieran, hagitz gogorra egiten zitzaidan herrian edozein momentutan ikus nezakeela pentsatzea, baina orain igual-igual zait. Pixka bat indartzen hasi naizen seinale». Ikasteko bide ere eman dio gertatu zaion

guztiak eta argi du «ez dudala inoren menpe bizi behar».

Bake eta lasaitasun bila

Urteak pasatu ondotik konturatu da, senarrak dibortzioa eskatuta «mesede egin zidala». Bertzela, «bertze bikote aunitz bezala» segitu izanen omen lukete, «haurrengatik aitzine-areginez, bikote aunitz inertziaz baitaude». Argi utzi nahi izan du bere kasua ez dela bakarra eta gisa berean, indarkeria ez dela soilik fisikoa nabarmendu nahi izan du: «urruti joan gabe, psikikoa aunitzez ere gehiago dagoela erranen nuke».

Berdintasunetik «urruti» ikusten du gizartea, «lanketa handia» egiteko beharrean, «matxismo handia, eta emakumeak ohartzen ez garen eta normaltzat hartzen ditugun adibide aunitz» ikusten dituelako. Hain zuzen, horiei luza-tu nahi izan die mezua Anek, ez dezaten bera bezala sufritu. «Inork ez daki noraino deuseztatzen ahal zaituzten kanpoko

batek begiak irekitzen dizkizun arte, orduan konturatzen zara zerbait ez doala bere bidetik. Hasieran, besta egiteko alkohola dela eta, ondotik bizitzak edo geuk aukeratutako egoerak onartu ditugula eta, azkenean, poliki-poliki min handia egiten digute. Eta bitartean, gu eutsi eta eutsi berandu den arte. Konturatu orduko, ez dakizu nora jo, ez ezker ez eskuin, deusetarako balio ez duzula pentsatu eta inork maiteko ez zaituela sentitzen duzu».

Horregatik, bere testigantza leitzuz, «norbait identifikatua sentitu bada edo inguruan egoera horretan dagoen norbait baldin badu, seinalerik ttikienarekin kontatzeko» gomen-datu die. «Ez izan beldurrik, laguntza eskatzeko deitu, joan norabait edo solastatu norbaitekin. Aunitzek ez dute kontatzen ez dutelako salatu nahi, baina salatu gabe ere, laguntza eska daiteke. Laguntzeko prest dauden profesionalak badaude, eta nahiz eta bakarrik daudela pentsatu, ez da horrela. Ezin dugu bizitza osoan zantpatuak bizi». Berak ere «aitzineragintza» nahi du, eta denaren gainetik, «bakea» du amets: «lasai bizi nahi dut. Lanean eta seme-alabekin ongi segitu, ez dut konplikazio gehiago nahi».

«HASERRARAZTEN BADUT EZ DAKIT ZER EGINEN DIDAN»

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

«EZIN DUGU BIZITZA OSOAN ZANPATUAK BIZI»

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA

Toki Onan estalpea egiteko 420.000 euro emanen dituzte

Toki Ona institutuko patioan estalpea egiteko 420.000 euroko aurrekontua onartu du Nafarroako Gobernuak

IZASKUN REKARTE

EH Bilduk eta Nafarroako Gobernuak sinatutako aurrekontu akordioetan, Toki Ona institutuko patioan estalpea egiteko akordioa jaso dute. Heldu den urtean 420.000 euro bideratuko dituzte eginkizun honetarako.

Berako EH Bilduk aipatu duenez, «egun, Toki Ona institutuak 521 ikasle ditu eta 53 urteko ibilbidean ikasleak egoteko estalperik ez da egin». Era honetan, egun euritsuetan ikasleek patioa ateratzeko aukerarik izaten ez dutela sa-

latu dute eta gehienetan «ikasgeletan gelditu behar izaten dute instalazioen gabezien ondorioz». Alkateak adierazi duenez «gaur egun daukagun pandemiak egoera honen larritasuna areagotu egin du».

Estalpe hau, Toki Ona institutuko ikasleez gain, herriar guztiek erabili ahal izanen dutela jakinarazi du Elexpuruk, «aisialdirako, kirola egiteko, merkatuak nahiz edozein ekitaldi egin ahal izanen dira». Era berean, estalpe honek herriak duen «gabezia» asezteko balio du.

Toki Ona BHI Ikastetxean Eskola kontselua hautatzen

Toki Ona BHI ikastetxean eskola kontseilua hautatzeko prozesuan daude. Zehazki, hiru irakasle, hiru ikasle, guraso bat eta administrari bat behar dituzte. Hautagaiek azaroaren 16a arte izan zuten beraien hautagaitzak aurkezteko epea.

Azaroko azken larunbatean ez da kinto bestarik

Lau urtez jarraian, azaroko azken larunbatean beratarrek Kinto bestak ospatu dituzte. Aurten bosgarren kinto besta ospatuko zuten bBaina, tamalez, Covid-19aren ondorioz ezarritako biltze debekuagatik ez da bazkaririk antolatuko.



UTZITAKOA

Gandeiaren emanaldi arrakastatsua

Azaroaren 7an, kultur etxean izan zen hitzordua eta sarrera guztiak borts minututan agortu ziren. Bertaratuek hainbat kanta eta dantzez gozatu ahal izan zuten eta emanaldia borobiltzeko, azkenean *Berako makil dantza* kanta eskaini zuten.



UTZITAKOA

Kotto gogoratzen duen horma-irudia

Urriaren 31n hamaborts urte bete ziren espetxe politikak Jose Angel Altzuguren *Kotto* erail zuenetik. Herritarrek ez dute hain data garrantzitsua pasatzen utzi eta azaroko lehen asteburuan *Kotto* omentzen duen horma-irudi koloretsua paratu zuten. Aitzinerago bertze ekitaldi bat egitea ez dute baztertzen.

IGONE

LIBURU-DENDA
PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA
MARGO-DENDA

KANTONBERRI, 4 BERA
T. 948 630 626

- 30€-tik gorako erosketetan %5eko deskontua Ttipi-Txartelarekin.
- Famili ugariantzat deskontuak.



Aitzinetik kasurik egon ez bazen ere, honetan gogor jo du gaitzak. UTZITAKOA

Koronabirus gaitzaren agerpena zahar etxean

Azaroko lehen bi asteetan zahar etxeko zenbait egoiliarrek eta langilek positibo eman zuten, gehienak sintomekin

IZASKUN REKARTE

«Berako zahar etxeko agerraldia kontroletik kanpo dago, positibo eman duten guztiak sintomekin daude eta Bortzirietan ez gaude nahiko mediku-erizain larrialdi hau behar bezala artatzeko». Kezkatuta agertu zen Ruth Gonzalez, Bortzirietako osasun eremuko arduradura, azaro hasieran izandako agerraldiaren ondotik.

Zahar etxean positibo emandako egoiliar gehienek sintomak izan zituzten, baina, zorionez, Nafarroako osasun agintariek jakitera eman zu-

tenez, zahar guztiak San Jose Zaharren Egoitzan zeuden eta, lerro hauek idazterakoan ez zuten inor ospitaleratu.

Gonzalezek erran zigunez, egoera ez zen batere ona zahar etxean. Kontuan hartu behar da zahar etxeetan dauden egoiliar gehienek, adinaz gain badutela gaixotasun edo ezintasunen bat eta, orain, Covid-19arekin kutsatutakoak, egoera bereziki larrian daudela.

Gauzak horrela, Bortzirietako mediku-erizain guztien lehenasuna eskualdeko zahar etxeetan jarri behar izan zuten.



UTZITAKOA

Testura proiektu bereziaren aurkezpena

«Isilpean baina ez sekretuan» izan dute orain arte, baina publiko egin dute jada. Testura izeneko proiektu berria sortu dute Ander Mujikak, Felix eta Johannes Buff anaiek, eta Maialen Belaustegi Lapeyra artista eta bideo-jockeyak. Proiektu berezi hau azaroaren 14an aurkeztu zuten kultur etxean.

'Txor-txor' bakarrizketa umoretsua

Euskaraldia, hamabortz eguneko ariketa sozial kolektiboa, umorearekin eta aho zapore gozoarekin bukatu nahi dute. Honetarako eta bide batez, Bortzirietako Euskaraldiari bukaera emateko abenduaren 4an, ortziralean, 19:00etan, *Txor-txor* bakarrizketa umoretsua antolatu dute, Lanku eta Euskalzaleen Topagunearen eskutik. Bakarrizketa Nerea Arriolaren eskutik izanen da Berako Kultur Etxean. Covid-19 dela eta edukiera mugatuko dute eta sarrera debalde izanen da.

'ZuTuberrak' emanaldia gibeleratu dute

Joan den igandean, azaroaren 22an, egitekoa zen Eidabe taldearen *ZuTuberrak* ikuskizuna gibeleratu behar izan dute. Abenduaren 6an egitea aurreikusi dute. Bertzalde, Kafe Antzerki Zikloko bigarren emanaldia Tartean Teatro taldearen *Ez dok hiru akustikoa*, programatutako egunean eskainiko da, azaroaren 29an. Aitzineko urteetan ostatueta egin izan badira ere, aurten emanaldiak Kultur Etxean 18:00etan izanen dira eta sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziralea:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

ETKEZ ETXKO ZERBITZUA
Ortziralea, larunbata eta igandea
19:30 - 22:30
ESKAERAK: 948 631 519
www.xugabera.com xugabera xugabera

Auzoa GO!
Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

Bide Berderako lotura Gobernuaren aurrekontuan sartua

Heldu den urtean 340.000 euro bideratuko dituzte Tomasenekobordako errotondatik Bereaura bitarteko zatirako

AITOR AROTZENA

EH Bilduk eta Nafarroako Gobernuak sinatutako aurrekontu akordioetan, herrigunea eta Bidasoako bide berdea lotuko dituen bidea egiteko akordioa jasota dago. 340.000 euro bideratuko dituzte Tomasenekobordako birilgune-tik Bereaura bitarteko zatirako eta heldu den urtean egingen dituzte lanak, turismoa eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko helburuarekin.

Lesakako EH Bilduk aipatu duenez, «hilabete aunitzetako lanketa baten emaitza da hau»

eta hauteskunde programan erran bezala, herriarentzako lehentasunezko behar bat da, ondorengo arrazoiengatik: «herri jasangarri eta eroso baten aldeko apustua da; Lesakarentzako proiektu estrategikoa da, herriaren garapena bultzatuko duena, lesakarren ongizatea hobetuko du eta ondotik etorriko diren proiektu gehiago egin ahal izateko abiapuntua da».

Aipatzekoa da joan den ortzegunean Mugikortasun Plan-a jendaurrean aurkezteko asmoa zuela udalak.

2021erako entitate soziokulturalentzako dirulaguntza deialdia

2021erako entitate soziokulturaleri (kultura, musika, kirol elkarte eta irabazi asmorik gabeko eragileak) zuzendutako dirulaguntzak eskatzeko epea ireki du udalak. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 30eko 13:00 arte egonen da zabalik.

Garazi Condek aztertuko du etxebizitzaren egoera

Herriko etxebizitzaren egoera aztertzeko ikerketa eta bertze lan administratiboak egiteko langile bat kontratatuko deialdia egin zuen udalak. Hautagaien artean puntuaziorik altuena lortu ondotik, Garazi Conde Orube kontratu du lau hilabeterako.



UTZITAKOA

Bizikletentzako trial parkea auzolanean

Irain eskolako frontoiaren ondoan bizikletentzako trial parkea egin dute herritar batzuek auzolanean, udalaren laguntzarekin. Bizikletekin soilik eta edozeinek ibiltzeko irekia egonen da. «Kasu honetan ere, auzolanean egindako ekintza izan da, horrek ekartzen dituen baloreekin».



UTZITAKOA

Irain eskolarako bide segurua egin dute

Irain eskolara joateko bide segurua eraiki dute. Abuztu-irailen burututako obra honek gorpildun aulkian edo bizikletan doazenei gune segurua eskainiko die. Obraren kostua 51.640,80 eurokoa izan da, eta Nafarroako Gobernuak 19.160,19 euroko dirulaguntza eman du.

SMAZIZIOR

edariak

ESKAERA EGITEKO:

M. 676 051 660

T. 948 631 557

Ordutegia. 10:00-13:00 eta 16:00-18:00

Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA

eposta: maziziorsenper@gmail.com

- IBERIKOAK
Urdaiazpikoa, Saltxitxoia,
Solomoa, Txorizoa
- IRULEGIKO AHATEKIAK
ETA PATEAK
- NAFARROAKO KONTSERBAK
- OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
- ARDOAK, CAVAK, TXANPAINAK,
PATTARRAK, SAGARDOAK
- BIO ETA MSC* KONTSERBAK (*arrantza jasangarria)

ENPRESA ETA
PARTIKULARRENTZAT

**Zure neurrira
prestatzen ditugu!**

**Eguberrietako eskaerak
etxera eramaten ditugu!**



Oskar Manso gasteiztarraren 'Ira' suertatu da garaile. OSKAR MANSO NAVAS



Jone Otxotekoren 'Atatxi', herritar baten argazki onena. JONE OTXOTeko MAIA

Argazki lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

Inoiz baino argazki gehiago aurkeztu dituzte, 260, eta Gasteizko Oskar Mansok lortu du lehen saria

TTIPI-TTAPA

Aurten emailaz bakar-bakarrik bidaltzeko aukera baldin bazegoen ere, guztira 260 argazki aurkeztu dituzte Beti Gazte elkarteak antolatutako argazki lehiaketara, inoizko kopururik handiena.


Jasone Telletxea, Itsaso Alkalde eta Ignacio Zaldua ar-

gazkilariek bete dituzte epaimahaiko lanak eta erabaki dute saridunak zein diren.

Honela, lehenbiziko saria Gasteizera (Araba) joan da. Oskar Manso Navas argazkilaria eskuratu du (375 euro eta trofeoa), *Ira* lanarekin. Bigarren saria, 275 euro eta trofeoa, Beasaingo (Gipuzkoa)



Kirol argazki onena. JOSE REYES BELZUNCE



Bigarren saria. MANU BARREIRO RGUEZ

Manu Barreiro Rodriguezek jaso du, *Liberación* lanarekin.

Lesakako argazkilari onenaren saria (225 euro eta trofeoa) Jone Otxoteko Maiak jaso du, *Atatxi* lanarekin.

Kirol argazki onenaren sari berezia (225 euro eta trofeoa), berriz, Sant Boi de Llobregateko (Bartzelona) José Reyes

Belzuncek hartu du, *Futbol playero* lanarekin.

Erakusketarik ez

Covid-19aren arazoa dela eta, azaroaren 8tik abenduaren 6ra aurreikusitako erakusketa bertan behera utzi dute, baina, Instagram bidez ikus daitezke argazkiak (@betigaztelesaka).



BETIKO HARRETA ORAIN ONLINE

Letxunborro hirib. 86, IRUN • (bezeroentzako parking estalia)

Toy Planet

- Etxez etxeko zerbitzua.
- Jarri gurekin harremanetan whatsapp edo telefono bidez.
- Sartu gure web orrian.
- Edo eskatu hitzordua.



Donostia: 666 08 76 66 - Irun: 634 80 17 51

Jostattikiak Jostamendi Tikiak

jostamendittikiak@jostamendi.com

www.jostamendittikiak.com - www.toyplanet.com

IRU-BIDE

OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili

kattagorria

LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara





Zumeldiko errekan zeuden hainbat zuhaitz ere kendu dituzte. UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru errektan eroritako zuhaitzak kendu dituzte

Iparraldeko Ur-Konfederazioak egin ditu lanak, urak handitzean arazorik ez izateko

IRUNE ELIZAGOIEN

Iparraldeko Ur Konfederazioak hainbat hobekuntza egin ditu Etxalarko erreketan. Gehien batean, ubidera eroritako edo erortzeko arriskuan zeuden zuhaitzak kendu dituzte Tximista errekan, Zumeldiko errekan eta herritik Lizarieta aldera doan errekan. Garbitze-lan horiek egiteko 19.000 euro inguru inbertitu dituzte.

Hala, Tximista errekan, Latsabetik goiti Burdinolan, Urritzokietara auzoan Sanduineko bordaren inguruan eta gero Orizki aldera Olazarrea inguruan tamaina handiko platanoak bota eta kendu dituzte. Zuhaitzek errekarara eroriak edo erortzeko arriskua zuten eta, beraz, buxadura edo tapoi bat egin eta sekzio

hidraulikoa murrizteko arriskua agerikoa zen.

Zumeldiko errekan, N-121-A errepide zaharraren ondotik abiatzen den ubidean behetik goiti, errekararen bazterretan zeuden sastrakak eta hainbat zuhaitz kendu dituzte, ubideari sekzio hidrauliko handiagoa emateko eta pasabidea itotzeko aukera murrizteko.

Hirugarren hobekuntza, herritik Lizarietara doan errepide bazterreko errekan zeuden buxadurak kenduta egin dute, sastrakak garbitu eta errekarara erorita edo erdi erorita zeuden zuhaitzak bota eta kendu dituzte. Bidenabar, errepidera erortzeko arriskuan edota telefono-linearen gainean zeuden zuhaitzak ere kendu dituzte.

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa azaroaren 25ean

I. ELIZAGOIEN

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egingen dituzte azaroaren 25ean, asteaz-

kenean 10:00etatik 14:00etara herriko frontoian. Aurretiko hitzordurik hartu gabe bertara daitezke herritarrek.



ITSASO ELIZAGOIEN

Bideko seinaleak margotu dituzte

Erreken egoera hobetzeaz gain, moldaketa gehiago ere izan dira herrian. Herrigunean, errepide zolako seinaleak pintatu eta Etxalarko Bentatik herrirako bidean zeuden zuloak ere konpondu dituzte. Segurtasunean irabazi da orain, seinaleek diotena betetzen bada, batez ere.

Guraso Elkarateak Eguberrietako goxokiak salgai

Landagain eskolako Guraso Elkarateak diru-laguntza lortzeko, Eguberrietako goxokiak salmenta jarri du martxan. Eskaintzen diren produktuak lau dira, 14 euro eta 17 euro bitarteko prezioekin, goxoki, bonboi eta pastak. Eskaerak kultur etxean egin behar dira azaroaren 30a arte, 16:00etatik 19:45era.

Euskaraldiko banderolak salgai Kultur Etxean

Etxalarren kultur etxean salduko dituzte bortz eurotan Euskaraldiko banderolak. Deialdia egin da leiho edota balkoiak euskaraldiko banderolekin apaintzeko. Bertan jartzen duen mezua egunero-kotasunean presente izan eta praktikan jartzea da helburua, «gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan euskaraz egitea».

Ainhua Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut.

Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

Bidasoko natura bideak egokitu dituzte berriki

Uraren Bailarak erakundearekin batera Bide Berdea egokitzeaz gain, Igantzitik San Juan Xarrerako bidea ere hobetu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernua, Tokiko Agenda 21aren dirulaguntzarekin, Uraren Bailarak erakundearekin batera Bidasoko Bide Berdearen zati batean hobekuntza-lanak egiten hasi da.

Alde batetik, Uraren Bailarak erakundeak, Igantziko Udalaren laguntzarekin, Bidasoko Bide Berdea hobetzeaz arduratu da, Igantziko Berrizaun eta Sunbillako Larrakaitz tunelaren arteko tartean. Tarte horretan arekak eta sakanguneak egin dituzte, euriteekin bideak ez hondatzeko. Lanak egiteko,

bidea oinezkoei eta txirrindulariei itxi zitzaizen azaroaren 8ra arte eta autoei azaroaren 13ra arte. Lanen kostua 22.143,21 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak % 70 konfintzatu du.

Igantzik San Juan Xarrera

Gainera, Igantziko Udalak herritik San Juan Xarrera doan bidearen seinaleztapena hobetu du, eta, bide batez, haren segurtasuna; lehendik zegoen zubi txiki bat egokitu du eta segurtasun-baranda bat paratu du. Igantziko Udalak fi-



Arekak eta sakanguneak egin dituzte, euriarekin bideak ez hondatzeko. UTZITAKOA

nantzatu ditu obrak, 9.371,61 euroko kostuarekin.

Obra horiekin natura-bide horien irisgarritasuna eta segurtasuna hobetuko dira, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako bidea gaituko da. Horrela, Bidasoko udalek beren ingurune natural aberatsaren jasagarritasunaren aldeko konpromisoa sendotu dute, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta turismo-proiektu osasungarri bat sendotzeko.

Etxalarko harrizko etxea Biziberri Sarirako hautagai

Nafarroako Gobernuak eza-gutuzera eman ditu Biziberri Saria irabazteko hautagai diren hiri eta landa eremuetako zazpi birgaitze proiektu eredugarri. Etxalaren, Christiane Vincent Etchechuriren proiektua bigarren finalista da.



**BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA**

**GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK**
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com












Kultur Astea ekitaldiz gainezka dator aurten ere

Abenduaren 3tik 7ra solasaldia, bertso jarriak, Pettiren kontzertua, dantza, zirku tailerra eta bakarrikzeta izanen dira

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Osasun larrialdian egonik ere, kultur ekitaldiek ez dute huts egingen Igantzin abenduan. Urtero bezala, zubia aprobeztatuz, egitarau zabala prestatu du euskara batzordeak, abenduaren 3an hasi eta 7ra arte.

Hasteko, **abenduaren 3an** Andoni Espartzak hitzaldia eskainiko du, *Zazpiak bat, Euskal Herriko armariaren historia* gai hartuta. Hitzaldia Baratzondon izanen da, 19:00etan.

Abenduaren 4an, ortziralea, Eñaut Agirre eta Unai Agirre bertsolarien saioa izanen da, bertso jarrien inguruan. *Auskalo zeinek jarriak* emanaldia eskainiko dute, Imanol Kamio eta Joxan Goikoetxea musikariek lagunduta. Emanaldi hau ere Baratzondon izanen da, 19:00etan.

Larunbatean, **abenduak 5**, Petti musikariaren kontzertua izanen da, 19:00etan, Baratzondon.

Igandean, **abenduak 6**, goizarratsaldez izanen dira ekitaldiak. Hasteko, 12:00etan,



Andoni Esparza hizlaria.

herriko dantzariak eta kankailuek herri buelta emanen dute. Arratsaldean, haurrentzat kultur ekitaldiak izanen dira, 16:00etatik aitzinera frontoian.

Azken ekitaldia **abenduaren 7an** izanen da. Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak *Bakean dagoenari bakean utzi* binakako bakarrikzeta komikoa eskainiko dute, Baratzondon, 19:00etan.

Euskara batzordeak herri-tarrak animatu nahi ditu garai triste hauetan kultur ekitaldietan parte hartzera. Emanaldietan gaur egun legeztatu behar diren edukierak eta distantziak errespetatuko dituzte, eta norberak maskara ekarrita, segurtasun osoz egingen dira ekitaldiak.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Kanposantua berritzen

Kanposantuko alde berria ere ari dira txukun aski paratzen; horma-hilobiak ere eraikitzen ari dira eta lur zatietan harrizko plakak paratu dituzte.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Haize boladek utzitako ondorioak

Udazkena haize bolada ederrekin darabilkigu eta honek kalte ederrak eragin ditu herriko bazter guztietan. Mendietan arbol pila ederra bota ditu eta zenbait etxetan ere izan dira haizeak eragindako ezbeharrak. Urriaren 21ean, erraterako, ordu saila pasatu genituen argindarrak gabe.

KAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak

Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko diseinua 3D

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Ortziralean Paris 365 Fundazioarentzat janari bilketa

Goizez eta arratsaldean jatekoa Bortzak Bat kooperatiban bilduko dute

NEREA ALZURI

Paris 365 jantoki solidarioan urte aunitz dituzte, bertze ekimenen artean, urteko egun guztietan, beharrea dauden pertsonentzako otorduak ematen. Eta herrian azken urteotan Paris 365 Fundazioa laguntzeko janari bilketa egiten dute.

Aurten ere bide beretik segituko dute eta ortzirale honetan, azaroaren 27an, otordu horietarako janaria eskuratzeko elikagai bilketa egingen dute Bortzak Bat kooperatiban. Ekarpina egin nahi duenak

goizez, 10:00etatik 12:00etara, eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara, izanen du kooperatibara jatekoa eramateko aukera. Betiko moduan, iraupen handiko edo iraungitze data luzea duten elikagaiak eramateko deia luzatu dute.

Bertzetik, fundazioa diruz lagundu nahi duenak ere izanen du horretarako aukera. Herriko bankuetan fundazioak duen kontuan egin dezake ekarpina.

Paris 365 Fundaziotik herriarren laguntza eskertu nahi izan dute.

Traktoreen azterketa tekniko ortzirale honetan eta heldu den asteartean

NEREA ALZURI

Ortzirale honetan, azaroak 27, eta heldu den asteartean, abenduak 1, traktoreei azterketa tekniko egiteko unitate mugikorra herriko frontoian izanen da. Herriguneko eta Eguzkialdeko herritarrek ortziralean 10:15etik eta 14:00etara bitar-

te izanen dute traktoreak eramateko aukera. Bordalarrea, Aientsa eta Azkilarreko auzotarrak, berriz, heldu den asteartean, abenduaren 1ean ordutegi berean izanen dute traktoreak eramateko aukera. Quad eta ziklomotorren azterketarik ez dute egingen.

40 urtez akordeoi irakasle izan ondoren erretiroa hartu du Iparragirrek

Baztanen 40 urtetik goiti darrazkien arren, sortzez aranztarra da Miguel Mari Iparragierre akordeoilaria. Etxetik eta ttitik izan zuen musikarekiko zaletasuna. 13 urterekin, herrian bertan, Martin Ibarrola zenarekin solfeoa ikasten hasi zen eta gero, Irun eta Donostiara joan zen akordeoia ikastera. Duela 48-49 urte, besta eta bertzelako ospakizunetan eskusoinua jotzen hasi zen eta duela 40 urte musika irakasle gisa hasi zuen bere ibilbidea, Baztango Musika eskolan, joan den urriaren 30ean bere hon-



ONDIKOL

darreko klasea eman zuen arte. Orain erretiroa hartu badu ere, dudarik gabe, akordeoia jotzen segituko du, musika eta akordeoiarekiko maitasuna eten gabea baita. Bejondeizula!



N. ALTZURI

Arto bilketa Senberron

Udazkeneko uzta bilketan, artoak ere badu bere tartea. Senberron aspalditik egiten dute artoa: lastoa behien janari; arto xehatua oilaskoentzat eta artoa errotan jo ondoren, opil goxogoxoak dastatzeko aukera. Eguraldia lagun, aurtengoa bilketa ere egin dute. Kontent dago etxeko ttikiena ere!

INGENIARITZA ELEKTRIKOA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

BOLETIN INDUSTRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allyane metodoa

logurak
www.logurak.com

gaueko konfort-kuxina

Centro Prim
regina tolosaechepare

Ikastetxeetako jolastokia estaliko da

Lanak 2021eko udan egitea arrekusi dute eta lanen esleipena lehenbailehen egingen da

MARGA ERDOZAIN

Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako aurrekontuen akordioan, ikastetxeetako eremuan estalpe bat egiteko 300.000 euroko diru-partida arrekusi dute. Estalpe honek, udalak eta ikastetxeek aspalditik duten beharrari erantzuten dio. Elizondon eta Leitzan antzeko akordioa lortu da eta antzeko azpiegitura eraikiko da.

Erabilera publikoa izanen du eta estalpea argizatua izanen da. Modu horretara, ikastetxearentzat ez ezik, bertzelako era-biltzaileentzat izanen da eta,



bertzeak bertze, kirol ekitaldiak egiteko eta jolas toki gisa aisialdirako erabiltzeko aukera izanen da. Lanak 2021ko udan egingen dituzte. Gobernuak egingen du lanen esleipena (lehen baino lehen gauzatuko da) eraikuntza udan egin ahal izateko eta irailerako dena prest izateko.

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunari keinu egingen diote

M. ERDOZAIN

Aldarrikapen eta salaketa eguna aurten bertze modu batera ospatuko da. Ohikoa zen bilkurarik ez da izanen, baina ikastetxeetan hainbat lanketa egingen dituzte. Paretan dagoen horma-irudia duten boligrafoak ikasleei banatu zaizkie (Male-

rrekan errespetuzko harremanak). Horretaz gain, ikasleek txapak prestatu dituzte eta Bortzirriak eta Baztango ikasleekin batera bideoak prestatu dituzte. Udalak, bere aldetik, balkoietatik horma-irudia paratuko du eta liburutegian erakusketa ikusgai izanen da.

150 herritar inguruk bat egin dute Euskaraldia egitasmoarekin

M. ERDOZAIN

Martxan da aurtengo Euskaraldia ekimena. Donezteben 150 lagun baino gehiago parte hartzen ari da Ahobizi eta Belarriprest txapa paparrean eramanda (Malerrekan 500 bat lagunek izena eman dute). Abenduaren 4ra bitarte eus-

kararen erabilera bultzatzeko ekimen- ariketa erraldoi honetan parte hartzen ari dira. Bizitzin ari garen uea historikoa den bezala, aurtengo Euskaraldia ere historikoa egin dezagun. Ahobizi eta belarriprest, segi euskararen historia egiten eta protagonista izaten!



FOTO ZALDUA

Nerea Agesta Osasuna futbol taldera

Doneztebe Futbol Taldean hasitako ibilbideari Osasunan emanen dio segida Nerea Agesta doneztebar gazteak. Taldekideek emandako pausoagatik zoriontzear gain, zorte ona opa nahi izan diote: «zorionak eta gozatu etapa berri honetaz Nerea!».

Erreka elkartearen Eguberrietako saskia eskuratzeko txartelak salgai

MARGA ERDOZAIN

Urtero bezala, Doneztebeko Erreka Kirol Elkartek Eguberrietako saski ederra osatu du urtean zehar egiten dituen jarduerak finantzatzeko. Zozketa txartelak herriko denda eta ostatu gehienetan paratu dituzte salgai. Zozketa abenduaren 18an egingen dute elkartearen egoitzan.

Honako hauek osatzen dute saskia: 150 euroko balea Doneztebarrak Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak saltokitan gas-tatzeko; 150 euroko balea erre-gaia erosteko; robot xurgatzai-



lea (Roomba); bi lagunentzako asteburu baterako ateraldia; hutsean ontziratze makina; ordenagailu eramangarria; mendiko bizikleta; 50" telebis-ta; bi lagunentzako otordua eskualdeko jatetxe batean; eta, ardo, urdaiazpiko nahiz likorez hornitutako saski eder bat.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina abenduaren 9ra arte

M. ERDOZAIN

Topaguneak bultzatutako 'Irakurri, gozatu, oparitu' kanpaina abenduaren 9an akituko da. Egitasmoa euskarazko liburuak irakurtzean datza, eta horrekin batera, parte-hartzaileak gustuko duten liburua euren lagun

bati oparitzeko zozketan sartuko dira. Egitasmoarekin bat egin duten liburutegietan guztira 500 liburu zozketatuko dituzte. Horretaz gai, Doneztebeko liburutegian kanpainarekin bat egiten dutenen artean irakurgailu elektroniko bat zozketatuko dute.

Herria eta ingurua ezagutzeko aukera dute irteeretan

Maite Ibarra Juankorena eta Jon Anzizar Ibarra guraso elkarteko kide izanen dira bi urtez

MAIDER PETRIRENA

Aurtengo ikasturtean, pandemiak eragindako egoeragatik, eskolako ikasle eta irakasleek herrian bertan eta inguruan egin beharko dituzte irteerak.

Urrian, Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren eta borzgarren mailako ikasleak gaztainak biltzera joan ziren, taldeka bereizita eta osasun egoerak dioen protokoloa betez. Eguraldi ona dagoen honetan, inguruko hainbat txoko ezagutu eta naturaz gozatzeko irteera ederrak egiteko aukera dute.

Guraso elkarteak martxan

Bi kidek guraso elkarteak utzi behar zuten aurten. Eta, bizi dugun egoera tarteko, bilerrik egin ezin den arren, boluntarioak agertu dira eta guraso elkarteak osatuta dago: Aritz Agesta Agirre, Ander Mariezkurrena Salaberri, Maitane Ibarra San Martin, Maite Ibarra Juankorena eta Jon Anzizar Ibarra osatu dute taldea.

Hondarreko bi hauek bi urtetarako sartu dira eta gaitzatzeko hirurek bertze urte batez segitu beharko dute taldean.



ARTXIBOKOA

Eguberri bereziak, inauteririk ez

Sunbillako Udalak jakinarazi duenez, aurtengo Eguberriak ezohikoak izanen dira. Bertzeak bertze, gazteak ez dira etxez etxe eskean ibiliko eta 2021eko inauteriak bertan behera geldituko dira. Ezohiko egoera honetan, osasuna lehenetsi eta segurtasun neurriak beteko dituzte.



TTIPI-TTAPA

Errigora saskia Ttipi-Ttaparekin

TTIPI-TTAPAK Errigorako hiru produktu sortak zozketatu eta banatu ditu dagoeneko. Saski zuria (berezia) Sunbillako Rosario Indakoetxea Zugarramurdiri egokitu zaio. Argazkian ageri da saskia hartzen TTIPI-TTAPAKO bulegoan, Edurne Iriarte alabarekin eta Aitor Arotzena zuzendariarekin.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



Azaroaren 27ra arte itxita egonen da. BAZTAN-BIDASOA.COM

Moldaketa lanak egiteko Leurtzarako sarbidea itxi dute

Lehendik zegoen aparkalekua egokitu eta bertze bat prestatu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Leurtzako urtegietako erre-pidea itxita dago azaroaren 13az geroztik eta halaxe egonen da azaroaren 27ra, ortziralerara, arte.

Urrozko Udalak jakinarazi zuenez, aparkalekua egokitze lanak egiteko tresneria astuna sartu beharra zutelako itxi zuten. Horrekin batera, bisitarietara itxieraren berri eman eta ez igotzeko eskatuz kartel bat paratu zuten herrigunean eta web orrialdean oharra zintzilikatu zuten. Bide batez, sorzitezkeen eragozpenengatik

barkamena eskatu nahi izan zuten.

Aparkalekua egokitu eta bertze bat prestatu

Hondarreko urteetan izan den bisitari kopurua kontuan hartuz, Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek bertze zaintzaile bat kontratatu (hirugarren bat) eta edukiera mugatu behar izan zuten eta horrekin batera bisitarietara hiru euro kobratzen hasi ziren. Orain, berriz, lehendik zegoen aparkalekua egokitu eta bertze bat prestatu nahi dute.

Oinezkoen segurtasunerako apaingarriak

Javier Migeltorenak egindako jardinerak paratu dituzte Donamaria erdigunean. Ibilgailuetatik bereiziz, haurrak plazara, igerilekura, parkera... lasai joateko modua izatea bermatu nahi izan dute.



UTZITAKOA



ARTXIBOKOA

Elkar zaintzeko deia egin du Ernaik

Gure hautua bizitzak direlako, pandemiari aurre egiteko benetako neurri eraginkorrak behar ditugu lelopean hainbat pankarta jarri ditu Ernaik Malerreka hainbat herri eta txokotan. Herritarrei elkar zaintzeko eta antolatze deia egin die.

Desfibriladorea paratu dute Donamarian eta ikastaroa emanen dute

TTIPI-TTAPA

Donamariako Udalak desfibriladorea paratu du herrian, igerilekuaren eta Herriko Ostatuaren terrazaren arteko eskaileran, larrialdi kasuren bat izanez gero, herritarrek eskuragarri izan dezaten. Udaletik jakitera eman dutenez «desfibriladorea eskura izatea erabakigarria izan daiteke mediku laguntza iritsi baino lehen pertsona baten biziraupena bermatzeko». Hortaz, herritarrei erabileraz solas egiteko eta errespetatzeko deia egin nahi izan diete: «azaldu etxekoei,



Desfibriladorea.

batez ere gazte eta haurrei, hau ez dela jostailu bat eta bizitza salbatzen ahal duela». Erabiltzen ikasteko ikastaroren bat ere antolatuko dutela adierazi dute, eguna eta ordua zehazten dutelarik jakinaraziko dute.

Beintza-Labaiengo herri-lur zati baten trukea onartu dute

Nafarroako Gobernuak Beintza-Labaienen Epuregieremuan 120 m²-ko herri-lur zatia Galdatzagañako 129 m²-ko jabetza partikularreko bertze lur zati batekin trukatzeko onartu du. Trukaketaren helburua bolumen handiko ibilgailuen joan-etorria erraztea izan da.

Zubietako kaleen izenak euskaratu eta egokitu dituzte

Kale berriak sortu dituzte eta besteei izendapen berria eman diete

TTIPI-TTAPA

Zubietako udalak herriko karriken izendegia berrikusi eta antolatu du. Lan horien bidez, herriko karriken izenak euskaratu hutsean paratu, zenbakiak ordenatu edo zuzendu eta kale batzuk berrantolatu ditu, berriak sortuz. Udalak, azken horiek izendatzeko, toponimoak erabiltzea erabaki du.

Karriken izenak euskaraz

Euskaratu ondotik, orain artean 'Calle Mayor' izenarekin agertzen zena Kale Nagusia izanen da aurrerantzean; 'Calle Alta' Goiko kalea, 'Calle Baja' Beheko kalea eta 'Calle Menor' Kale txikia.

Horrez gain, sortutako kaleak Azperro kalea (orain artean 'Calle Mayor'), Zortotzako bidea (lehen 'Calle Mayor'), Landako Bidea, Zakelo kalea



Landako goiko bidea.

(orain artean 'Calle Menor'), Landako goiko bidea eta Aingeru Iturriko bidea (lehen 'Calle Mayor') izanen dira.

Aldaketak eginak eta jakinaraziak

Zubietako Udalak aldaketa jaso duten herritarrei jakinarazpena bidali die; eta horretaz gain, interesa duten guztiendako, herriko mapa (egin dako aldaketekin) www.zubieta.eus webgunean jarri du eskuragarri.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARKAITZ MINDEGIA

Uso ehiza akitu da

Ehiztariak aurtengo uso ehiza akitu dute eta denboraldi ona izan omen da. Uso aunitz ikusi eta nola ez punteria fina eduki duenak aunitz bota ditu. Nahiz eta usoaren denboraldia akitu, orain oilagor eta basurde ehizaren txanda da. Basurdeetan aritzen direnek ere fin omen dute punteria.

Bostorraz-Mendaur erronkarako prestatzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Aberri Untxalo, Julen Retege, Ibon Leiza, Urko Loiarte, Aritz Juanenea, Iñaki Maylin eta Eloi Garcia bigarren Bostorraz-Mendaur erronkarako prestatzen ari dira. Azarorako aurreikusi bazuten ere, gibelatzea erabaki zuten.



Parte-hartzaileak.

Ariketak egiteko tresnak paratzeko dituzte Ezkurran

Eskualdeko hainbat herritan bezala, Ezkurran ere adinekoen osasuna eta ongizatea zaintzeko helburuz, ariketak egiteko tresnak paratzekoak dituzte. Udaletik jakinarazi zutenez, abendurako prest izatea espero dute. Ea laster martxan diren!

Adinekoen bizi kalitatea aztertzeko tailerrak gibelatuak

Urrian hastekoak ziren Ezkurran Iratxo ludotekan adinekoen bizi kalitatea aztertzeko tailerrak. Nafarroako Gobernuak neurriak zorroztu eta sei lagun baino gehiago ez elkartzea arautu zuenez, ez zuten martxan jartzerik izan. «Ahal denean» hasiko dituzte tailerrak.

Giltzak eta aginteak

AUTOA - MOTOA - KAMIOIA

Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN

SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**

Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

«Egoerak gehiago kezkatzen gintuen gaixotu baino lehen»

OIHANA ELIZALDE MITXELENA COVID-19A PASATU DUEN AURTITZARRA

Elizalderen etxeko guztiek pasatu dute koronabirusa eta sintomak izan dituztela dio, baina arinak. Okerrena, ordea, gaixotu aitzinetik eta ondotik ingurukoak kutsatzeko sentitu duen beldurra izan omen da

G. PIKABEA AURTITZ

Irail erdialdean agertu zitzairen ate joka koronabirusa Oihana Elizalde Mitxelenari (Aurtitz, 1989) eta bere etxekoei, berak dioenez, «inondik inora espero ez» zutenean. Elizalde berak ez ezik, Iñaki Telletxea Iribarren bikotekideak, orduan zazpi hilabete eskas zituen Haizea alabak eta Elizalderen amak ere positibo eman zuten. Hasiera hartan, «harrituta bezain urdurituta» sentitu omen ziren, baina onartu digunez, egun batzuetako kontua izan zen. Gaur egun, birusa gaindituta, «aski ongi» sentitzen direla aitortu digu Elizalde, «inolako ondoriorik gabe».

Irail erdialdean koronabirusean positibo eman zenuten. Nola izan zen?

Iñaki sintomekin hasi zen, baina PCR proban negatibo ateratu zitzaion. Katarro bat edo izanen zuela erran zion medikuak, eta lasai geunden. Emaizta erran ziguten egun bereko ilunabarrean, Haizea sukarrarekin hasi zen, baina aitzak bezala katarro bat edo izanen zuela pentsatu genuen. Hala ere, medikuak, protokoloak segitu behar zirela eta, proba egitera bidali gintuen eta positibo eman zuten. Horren ondotik, inguruko guztiok proba egin genuen. Iñakiri ere berriz egin zioten proba, hasieran egindakoa negatibo faltsua izanen zelakoan. Iñakik, nire amak eta nik eman genuen positibo.



Oihana Elizalde, bikotekideak, alabak eta amak pasatu dute Covid-19a.

Nola sentitu zineten?

Ez genuen inondik inora ere espero, eta hasieran, harrituta bezain urduri sentitu ginen. Haizearen emaitza PCRa egin eta hurrengo egunean jakin genuen, baina ordurako Haizea ongi zegoen, eta horrek nolabait lasaitu gintuen. Kezkatzen gintuztenak familiako bertze kideak ziren. Sentimendu aunitz nahasi zitzaizkigun: kezka ingurukoengatik, harri-dura, nolabaiteko errudun

sentsazioa, amorrua... Baina, behin hasiera hori pasatuta, lasai egon ginela erranen nuke.

Zein neurri hartu zenituzten?

Egia erran, ongi tokatu zen, hirurek batera eman genuelako positibo. Etxean hirurak bakarrik bizi garenez, etxe osoan elkarrekin egon ginen eta dena erran behar bada, Haizeak aunitz gozatu zuen biok etxean berarekin egon ginelako.

Zer egin zitzaizuen gogorrena?

«BIKOTEKIDEAK, ALABAK, AMAK ETA LAUROK EMAN GENUEN POSITIBO»

«ORAIN ASKI ONGI GAUDE, EZ DUGU INOLAKO ONDORIORIK»

Sintomen aldetik ez zen gogorra izan. Pentsamenduak, tarteka, maingu egiten zigun, bakoitzak nolako bilakaera izanen ote genuen... Okerrena, ordea, ingurukoengatik genuen kezka zen. Egutero, ernatu orduko, lehenbizi nire ama zer moduz ote zegoen jakin nahi izaten nuen. Eskerrak asintomatikoa izan zen...

Zein sintoma izan zenituzten?

Gure kasuan, hirurok izan genituen sintomak. Lehenbiziko egunean, hotzikarekin hasi ginen, gero sukarra izan genuen eta hurrengo egunean buruko karga handi samarra sentitu genuen. Sukarra, hiruron kasuan, ordu batzuetako kontua izan zen, eta hortik aitzinera ez genuen berriz izan. Nik usaimena ere galdu nuen eta nire usaimenak aste bateko oporraldia hartu zuen. Gainerakoan, mukieria pixka bat eta katarro arin baten sentsazioa izan genuen egun batzuez. Haizeak arratsalde bat eta hurrengo eguna pasatu zituen arraro, baina hortik aitzinera ez zitzaion deus nabaritu. Ongi ikusten genuen eta, beraz, ez genuen batere gaizki pasatu. Egoerak gehiago kezkatzen gintuen koronabirusa pasatu baino lehen.

Ondoriorik utzi dizue koronabirusak?

Aski ongi sentitzen gara, ez dugu inolako ondoriorik nabaritzen. Eskerrak!

Gaixotasuna pasatua izateak zerbait aldatu du zuengan?

Guk neurriak hartzen segitzen dugu, orain arte egin duguna egiten. Agian sentsazio lasaia-goarekin gaude, baina arduraz jokatzeko segitzen dugu. Momentu honetan triste, bakardadean, beldurturik... daudeneke kezkatzen naute, baita ospitaleetako egoerak ere. Bizitzak aitzinera segitzen du eta bertze hainbat tratamendu edo artatze ere beharrezkoak dira.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Elkar zaintzeko, horretarako modu aunitz daude eta.



A25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK BADIRAU ORAINDIK,
IKUSTEN EZ BADUZU ERE... EDO IKUSI NAHI EZ BADUZU ERE

IREKI BEGIAK



BERDINTASUNEAN
AURRERA EGITEAK
INDARKERIA EZABATZEN DU

generoindarkeriagehiagoez.nafarroa.eus



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

25 Aniversario - Urteregia
1955 - 2020

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Bortzirietako nobiliariaoa liburu batean bildua

Vianako Printzea erakundeak eta Bortzirietako udalek koeditatu dute Iñaki Garrido eta Carlos Rilovaren liburua

TTIPI-TTAPA

Iñaki Garrido Yerobi eta Carlos Rilova Jericó historiagileek idatzitako *Bortzirietako nobiliariaoa. Noblezia, kaparetasuna eta odol-garbitasuna egiaztatzeko frogantzak (XVI-XIX. Mendeak)* liburua aurkeztu zuten azaroaren 18an Iruñean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko areto nagusian. Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea erakundeak eta Bortzirietako udalek koeditatu dute liburua. Kike Diez de Ulzurrunek egin du hitzaurrearen eta sarrerako orrien itzulpena. Argitalpenak 880 orrialde ditu eta 500 aleko tirada, eta liburu-dendetan eros daiteke, 18 eurotan.

Bortz herrien iragan historikoa aztertzen du, haien 350 hidalgia eta aurkitutako odol-filiazioak aztertuz. Argitalpen honen bidez, Nafarroako Erresumako Bortzirietan erroto-tako deituen ondorengoei noiz agertzen diren, arbasoen gorabeherak, deituen eramaileak eta armariak itzultzen saiatu dira egileak. Horretarako, 1515etik aitzinera eta

hiru mende baino gehiagoan izapidetutako espedienteak ikertu dituzte, batez ere Nafarroako Artxibo Nagusian.

Liburua, hitzaurrearen ondorengoei, *Kaparetasun espedienteak* izeneko atalarekin hasten da. Bertan, kontsultatutako artxiboak eta armariari buruz lortutako datuen aberastasuna, oinetxeen jauregiekin duten erlazioa eta informazio genealogikoa handia agertzen da. Era berean, kaparetzat hartzen zirenen noble-izaera frogatzeko prozesu konplexua aztertutako, horrela, hiribilduetako elitean parte hartu ahal izateko eta estamentu nobleari Erresuma Zaharrean esleitutako pribilegioak izateko.

Kaparetasuna lortzeko prozesuan izangaiak filiazio, noblezia eta kaparetasun auzia jarri behar zituen bizi zen lekuko udal agintarien kontra, herri horretan kapare gisa onartua izateko. Hala, liburuaren bigarren zatian, 600 orrialde baino gehiagotan jaso dira kaparetasun auzilarien abizen arabera alfabetikoki ordenatutako auzien transkripzioak.

XVI. Keinu-Leihoak Antzerki Jardunaldiak eginen dituzte Lesakan

TTIPI-TTAPA

Keinu-Leihoak Antzerki Zirkularen hamaseigarren edizioa antolatatu du Mairu Antzerki Tailerrak, Lesakako Udalaren eta Arranoren laguntzaz. Abenduan bi emanaldi izanen dira Harriondoa Kultur Etxean, biak 18:30ean hasita. Aben-

duaren 3an, ortzegunean, *Gaztelondon zer berri?* taularatu dute. Abenduaren 5ean, larunbatean, *Tribiz, baserri galdue* antzeztuko du Jon Ander Urrestik. Azken emanaldia urtarilaren 8an izanen da Arranon. Gilkitzarok *ETaren agiri bulegoa* antzeztuko du.



Jarraitzaileen babesari esker, bertze disko bat plazaratu du Trikidantzek.

Trikidantz taldearen bi produktu sorta zozketatuko dira abenduan

TTIPI-TTAPA

Trikidantz taldeak plazaratu berri duen *Bizitzaz goxatu* diskoaren aurkezpenera egingen du abenduaren 3an eta 4an. Ortzegunean, 18:00etan, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean dute hitzordua eta ortziralean, 17:30ean, Doneztebeko zine-

man izanen dira (sarrerak 641 58 99 08 telefonora deituz gorde daitezke). Diskoa ez ezik, taldearen produktuak biltzen dituen bi sorta zozketatuko ditu TTIPI-TTAPAK harpidedunen artean. Irakurleek ERRAN.EUS atarian eman dezakete izena azaroaren 26tik abenduaren 11ra bitarte. Irabazlea abenduaren 14an jakinaraziko dute.



Bertsolariak iazko Bertsoaroa egitasmoa saioetarikoa batean.

Bertsoaroaren barne, hondarreko jaialdia azaroaren 26an Iruñean

TTIPI-TTAPA

Erika Lagoma eta Josu Sanjurjo lesakarak, Julio Sotok, Maialen Lujanbiok, Beñat Gaztelumendik eta Eneko Lazkozek Maialen Belarra doneztebarrak jarritako gaiei erantzun behar diote azaroaren 26an Iruñean izanen den bertso jaialdian. Bertsoaroa egitasmoaren bar-

ne antolaturiko hondarreko hitzordua Nafarroako Antzerki Eskolan izanen da, 19:00etan. Bertaratu nahi dutenek aitzinetik gonbidapena hartu behar dute. 17:30etik aitzinera egonen dira eskuragarri, bukatu arte eta pertsona bakoitzak, gehienez ere, bi txartel hartu ahal izanen ditu.



Abenduan ordezkariak egin ohi dute. ARTXIBOKOA

Urteko azken bilera egin du zuzendaritza taldeak

Covid-19ak baldintzatutako egoera tarteko, heldu den urterako bidaiak aurreikusteko zailtasunak dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtarriletik azarorako balorazioa egin eta hurrengorako egitasmoak aztertzeko, zuzendaritza batzordeak urteko azken bilera egin zuen azaroaren 10ean. 2020ko ekimenak zenbatzen ez ziren gehiegi luzatu, martxoaz geroztik ia jarduera guztiak – ikastaroren bat salbu – bertan behera gelditu ziren eta.

Ikastaroak martxan

Heldu den urteko ekintzen zerrendak nahiko kezka sorrarazi zien. Hala ere, ikastaroak behintzat, neurri zorrotzak betez, martxan daudela nabarmendu nahi izan zuten. Gainera, parte-hartzaileek orain artean bezala ikastaroen gastuak ordaintzeko kostu osoaren %20tik %40ra arteko dirulaguntzak izanen dituztela iragarri dute.

Bidaia ezin aurreikusi

Bertzalde, hain estimatuak diren bidaia eta egonaldiak kudeaketak buruhaustea eragin zuen. Tartean, 2020ko martxorako Bartzelonara prestatuta zegoen bidaiak


aritu ziren. Bidaiari bakoitzari ordaindutakoa (100 euro izan ezik) itzuli zitzaion eta, gibelatua denez, heldu den urtean egiteko asmoa dute. Hala, bidaiariei itzuli gabeko dirua kontuan izanzen dutela jakinarazi nahi izan diete. Dena den, ziurgabe aritu ziren. Izan ere, Covid-19aren ondorioz jende multzoak ez elkartzeko neurriak noiz arte iraunen duen ez jakiteak aurreikuspenak zeharo baldintzatu ditu. Elkartek, bere aldetik, «aukera sortu bezain laster» edozer antolatzeko borondate irmoa adierazi zuten.

Buletina

Akitzeko, bileran urteko bigarren seihilekoko buletina osatzeko gaiak onartu zituzten eta bazkideek liburuxkan irakurriko dituzten azken berriak adostu zituzten. Herrietako ordezkariak laster biltzera joateko dei egin diete. Dena den, arduradunak ez kezkatzeko deia egin diete, hurrengo TTIPI-TTAPAN informazio hori bilduko dutelako.

ZUZENKETA

Urriko hirugarren TTIPI-TTAPA aldizkarian 2019ko eta 2020ko bidaia parte-hartzaile kopurua agertzen zen. Iazko zerrendan hemezortzi irteera, festa eta egonaldi agertu ziren. Irakurle finak zaretenez, konturatuko zineten bi hitzordu hagitz estimatuak eta garrantzitsuak falta zirela: batetik, urriko lehenbiziko 14 egunetan 40 kidek Benidormera egindako egonaldia; eta bertetik, hilabete berean 24an Gorraizen 592 kide elkartu ziren Bazkideen Eguna. Argi dago, parte-hartzaile zenbakia ere ez zela emandakoa, 2.338 izan beharrean 3.000 izan ziren. Lerro hauen bidez, hanka sartze horrek sortu ahal izan duen nahasmenduagatik, barkamena eskatu nahi izan dute.



Loteria txartelak 10 eurotan daude salgai.

Arkupeak elkartearen loteria txartelak eskuratzeko azken egunak

TTIPI-TTAPA

Aurtengoa urte berezia izaten ari den arren, segidan datoz urte bukaera eta hurrengoaren hasiera lotzen dituzten Eguberriak. Egun seinatua eta desiatua izaten da festen hasiera, abenduaren 22ko loteriaren zozketa alegia. Aurtengo ere, ordezkariak esker,

herriz herri hedatuak daude loteria txartelak. Hamar eurotan daude eskuragarri eta erosten dituztenek 92.907 eta 76.243 zenbakiekin launa euro jotuko dituzte (bertze bi elkarteak laguntzeko izanen dira). Erosi ez duenak oraindik badu aukera, «eskuratu zeurea eta zorte on!».

Berdintasun eta boluntario planak martxan

Edozein elkarte bezala, Arkupeak ere urtero berriro behar izaten du berdintasun eta boluntariotza plana eta aurtengo ere egin dute. Argi dago elkarteak bata eta bertzea egunerokoan betetzen dituela, elkartearen oinarrietako batzuk baitira.

Kiroldegiekin zuten hitzarmena berriro dute

Elkarteak Leitzako Anikote, Baztango Giltxaurdi, Berako Urdibera, Plazaola-Lekunberri eta Lesakako udal kiroldegiekin zuten hitzarmena berriro du. Horrela, adinekoek kirola egiteko aukera izatea bermatu nahi izan dute.

Gobernuak 280.000 euro aurreikusi ditu estalpea egiteko

Horrez gain, elikadura burujabetza sustatzea helburu duen Mimukai egitasmorako 70.000 euro onartu dituzte

TTIPI-TTAPA

Estalpea egiteko herritarren aspaldiko eskaerari argi berdea eman diote eta Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako aurrekontuen akordioan eskolako eremuan estalpe bat egiteko 280.000 euroko partida aurreikusi dute.

Pozik hartu dute udalean berria, Mikel Zabaleta alkatearen hitzetan, «aspaldiko behar objektiboa» izan delako: «Leitzako eskola eremuan, Erleta eta Amazabal ikastetxeetako 650 ikasle inguru biltzen dira eta faktore horiei hemengo baldintza meteorologikoak gelditu behar zaizkie, euri gehien egiten duen herrietako batean bizi garelako. Horrek ikasleak kalera ateratzeko aukerarik gabe uzten ditu eta egoera ere larriagoa bihurtu da Covid-19arekin».

Finantzazio bila

Ikastetxeek zein guraso elkarrekin behin baino gehiagotan eskatu izan dute estalpea. 2015ean sinadura bilketa egin zuten herritarrek eta udala ere aspaldi hasi zen irtenbide bila. Aurreko urtean, esaterako, hainbat aukera aztertu ondoren, aukera egokiena eskola eremuan estalpea egitea zela ondorioztatu zuen, eta 350.000 euroko aurrekontua aurreikusi zuten. Udalak gobernura jo zuten finantzazio bila eta parlamentuaren lantsaioan ere parte hartu zuen.

Urtebete beranduago etorri da erantzuna, gobernuak eta EH Bilduk Nafarroako aurrekontuekin akordioa erdietsi dutenean. Hala, 350.000 euroko aurrekontuaren %80 bere

gain hartuko du gobernuak eta gainerako %20a udalaren esku geldituko da.

Alkateak adierazi duenez, «erabilera publikoa izan den estalpe argiztatua izan da, eta ikastetxeentzat ez ezik, bestelako erabilera ere izan da: aisialdia, kirol ekitaldiak, azoka...». Estalpearekin Erleta eskola aurreko futbol zelai txikia tapatua gelditu denez, «udalak hori atonduko» duela jakinarazi du Zabaletak.

Lanak datorren udan egitea espero du alkateak: «gobernuak egingen du obren esleipena eta lehenbailehen hasi nahi du prozedurarekin, lanak udan egin eta irailerako dena prest izan dadin».

Mimukai egitasmoa

Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako akordioarekin, beste partida bat ere onartu dute: Mimukai egitasmorako 70.000 euro, hain zuzen.

Txertatutako arbolei ateratzeko zaien kimuaren izena daraman proiektuak elikadura burujabetza sustatzea du helburu. Alkatearen hitzetan, batetik, «garapen agentzia» izanen litzateke, «espazio bat eskainiko luke». Eta bestetik, «sukalde industrial publiko bat» eraiki nahi dute, «bertako produktuak modu legalean transformatu ahal izateko». Gisa honetara, «beste ate batzuk» irekiko direla uste du alkateak, denak ere «bertako elikagaiak eta ekonomia bultzatzeko».

Aurreikusitako diru-partida «proiektua modu teknikoan» garatzeko erabiliko dute, alkateak aurreratu duenez, «egitasmo konplexua» izan den delako.

Leitzaldeko irakurle talde feministak taldeari jarraipena ematea erabaki du

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8aren bueltan egin zituen aurreneko mugimenduak Sastrakak talde feministako irakurle taldeak. Orduko hartan Kattalin Minerren *Moio* liburua aukeratu zuten eta irakurritakoa hizpide hartuta ideiak elkarbanatzeko bildu ziren, esan dutenez, «oso gustura». Horregatik erabaki zuten «irakurle taldeari jarraipena ematea». Hala, maiztasun finkorik gabe, hiru hilabete behin liburu bat aukeratu eta irakurri nahi dute. Aldi honetan Uxue Alberdiren *Kontrako ez-*



Abendurako aukeratu duten liburua.

tarritik aukeratu dute. Azaldu dutenez, liburutegian hainbat ale izan den dira eta online irakurtzeko aukera ere izan den da. Abenduaren 17an Atekabeltzen bilduko dira, 18:30ean.



ENERITZ IRAOLA

Bertako produktuen azoka arrakastatsua

Herriko ekoizleen erakusleho izan zen Amazabal pilotalekua azaroaren 15ean, bertako produktuen azokaren VI. edizioan. Ekoizleek euren produktuak plazaratu zituzten eta hurbildu zirenek denetarik erosteko eta dastatzeko aukera izan zuten.

'Osasunaz beste begirada bat' formakuntza zikloa

Osasunaz Hausnartzen lantaldea sortu dute eta ostegun honetan hasita lau saioko formakuntza saioa antolatu dute

JM BARRIOLA

Osasunaren inguruan «beste begirada bat lantzeko beharra» ikusita, Osasunaz Hausnartzen taldea sortu dute hainbat herritarrek. «Kezkatuta» daudelako «Covid-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz bizi dugun egoerarekin».

Irail aldera hasi ziren biltzen, «osasunaren eta bizi dugun eskubide murrizketen inguruan hausnartzeko» eta orain, formakuntza ziklo bat antolatu dute, azaroan hasi eta otsailera bitarte lau saio. «Komunikabideetatik eta toki guztietatik ezetxean eta distantziamendu sozialean oinarritutako betebeharrak agintzen dizkigute, baina inon ez dugu entzuten zer egin behar dugun egiazki gure osasunari indartsu eusteko». Horri buelta emateko prestatu dute *Osasunaz beste begirada* bat izenburupean formakuntza zikloa, «gaia hainbat ertzetatik aztertzeko, elkarrekin gogoetatzeko, hitz egiteko eta bizitza osasuntsuan hezteko helburuarekin». Saio guztiak Atekabeltz herrigunean egingen dituzte eta adierazi du-

tenez, segurtasun neurriak zainduta egingen dute, hala nola, edukiera mugatuta.

Lau saioko formakuntza zikloa

- Azaroaren 26an, ostegun honetan, 19:00etan, *Nola zaindu gure osasuna garai hauetan. Txertoa zu zuek zara* hizpide izanen du Arturo Vinuesa Saenz medikuak.
- Abenduaren 17an, osteguna, 19:00etan, *Kutsadura elektromagnetikoaren eragina gure osasunean eta ingurumenean* hitzaldia emanen du Asier Arregi ingeniari agronomoak eta geobiologoak.
- Urtarrilaren 8an, ostirala, 18:00etan *Covid-aren aurrean txerto emozionalaz* ariko da Nerea Mendizabal psikopedagogo eta gizarte hezitzailea.
- Otsailaren 18an, osteguna, 19:00etan, *Zer da bizitza osasuntsua? Elikaduratik gure interdependentziak arakatzen* hitzaldia emanen du Goiuri Alberdi Aresti nutrizioan eta osasunean doktoreak.

Felisa Pellejero frontenis txapelketa larunbat honetan

TTIPI-TTAPA

Aresoko Felisa Pellejero pilotari profesionala gogoan, Sas-trakak talde feministak emakumeen Leitzaldeko I. frontenis kanporaketa antolatu du larunbat honetarako, azaroak 28. Binakako frontenis txapelketa ez mistoa izanen da eta

partidak Amazabal frontoian jokatu dituzte, 15 tantotara, goizez eta arratsalde. Izena emateko epea azaroaren 21ean bukatzekoa zen. Honela, diktadura garaian Madrilen zein handik kanpo erraketarekin aritu zen kirolari handiari keinu egin nahi izan diote.

21 erabiltzailerekin martxan jarraitzen du jubilotekak

Olaia Salaberria goizuetarraren lekukoa hartuz Ainhoa Ansa aranoarrak hartu du jubilotekaren ardura

TTIPI-TTAPA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko jubiloteka zerbitzuak martxan jarraitzen du. 21 erabiltzaile ditu (17 emakume eta lau gizonezko) eta ez dira geldirik egon eta gorputzari eta buruari eragiten jarraitu dute zailtasunak zailtasun. Orain

arte goxo-goxo egon dira Olaia Salaberria goizuetarrarekin eta hemendik aurrera Ainhoa Ansa aranoarra izanen dute gidari. Adierazi dutenez, «beharrezko neurri guztiak zainduko» dituzte eta «baliteke saio batzuk aurrez aurre egingen hastea, hala nahi eta ahal duten herrietan».

Plazaolako natur bidean erabiltzaile kopuru zehatza neurtzeko kontagailuak

TTIPI-TTAPA

Plazaolako natur bidean erabiltzaile kopuru zehatza neurtzeko kontagailuak jartzeari ekin diote. Halaxe jakinarazi dute Plazaola Partzuergo Turistikotik.

Kontagailu horiei esker Plazaolatik pasatzen direnen

artean, zein diren oinezkoak eta zein bizikletarekin dabil-tzanak bereiziko dute, baita horietako bakoitza zein norantz kotan doan ere. Horri esker, «natur bidearen erabileraren inguruko datu zehatzagoak jakinen ditugu», adierazi dute partzuergotik.



JUNKAL OTXOTORENA

'Miñan' liburuaren aurkezpena Leitza

35-40 lagun elkartu ziren joan den azaroaren 5ean Arano, Areso, Goizueta eta Leitza Euskara Zerbitzuak antolatuta egin zen *Miñan* liburuaren aurkezpenean. Garazi Zabaleta eta Aroa Uhartte herritarrek gidatu zuten hitzordua eta Amets Arzallus, liburuaren egilea, bertan izan zen.

Umore Ona Pilota Txapelketa atzeratu dute

Halere, Mendialdeko pilota txapelketan lanean segitzen dute herriko pilotari gazteek

TTIPI-TTAPA

Umore Ona Pilota Elkartek antolatuta, aurreko bosgarren aldiz egitekoa zen Umore Ona Pilota Txapelketa oraingoz ez egitea erabaki dute. Zuzen bidean abenduan hasi eta urtaril erdialdera bitartean egitekoa zen, Nafarroako eta Gipuzkoako pilotariekin, baina momentuko osasun egoera dela eta atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Pilota elkartetik adierazi dutenez, «espero dugu egoerak hobera egitean txapelketa antolatzea».




Alize Sagardui jokoa. IGOR ELIZEGI

Mendialdeko txapelketa

Leitzako Aurrera eta Larraun eta Araxes pilota elkarteekin elkarlanean antolatzen duten Mendialdeko pilota txapelketarekin, ordea, aurrera segitzen dute, baina atea itxita eta ikuslerik gabe, eta aldi bakoi-

tzean partida gutxi antolatuz, «pilotarien pilaketarik ez sortzeko». Joan den asteburuan ligaxkako azken partidak eta final-laurdenetako partida batzuk jokatzekoak zituzten.



GOIZUETAKO UDALA

Komun publikoa erabilgarri dago

Tifanitxo barrutik eraberritzeko lanekin batera, herritarrek egindako eskaerari erantzunez, komun publikoa egin zuen udalak pilotarien aldagelak zeuden tokian. Lanak erabat bukatuta, erabiltzeko moduan dago komuna. Aurreko astean ireki zuten.



FELIX LOIARTE

Giro ederra azokan

Eguraldi ona lagun, eta osasun egoera tarteko indarrean diren murrizketak kontuan hartuta, herriko eta inguruko hainbat nekazarik eta artisauk parte hartu zuten azaroaren 8an egin zen azokan. Bisitariek ere oso erantzun ona eman zioten hitzorduari.



GOIZUETAKO UDALA

Arrapala guraso elkartearen lokalean

Irigarritasuna hobetzeko helburuarekin, arrapala jarri dute guraso elkartearen lokalean. Gisa honetara, sartzeko edo ateratzeko ez da eskailerak erabili beharrik izaneren. Aipatu behar da arrapala jartzeko lanak auzolanean egin dituztela eta aski txukun gelditu dela.

Euskaraldia eta Errigorarekin bat egin dute herritarrek

52 herritarrek eman dute izena Euskaraldian eta Errigorako 22 saski eskatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Euskaraz bizi den herria da Areso eta euskararen aldeko pausoak emateko borondatea ere agerikoa da herritarren artean. Euskaraldian parte hartuko dutenen kopurua eta Errigorako saskia erosi dutenena dira horren erakusle. 52 herritarrek eman dute izena Euskaraldian parte hartzeko: 51 *ahobizi* eta *belarriprest* bat dira euskara *gehiago*, *gehiagorekin* eta *gehiagotan* egiteko konpromisoa hartu dutenak. Horrez gain, bi *arigune* izango dira: udala eta guraso elkarteak.

Errigorako saskia erosi dutenen kopuruak ere gora egiten du urtetik urtera, eta aurten 22 saski eskatu dituzte. Aurreko aldizkarian aipatu bezala, ostiral honetan, azaroak 27, banatuko dituzte saskiak, 19:00etatik 20:00etara plaza zaharrean.

Euskararen Eguna

Euskararen Egunaren inguruan zer egin erabakitzeko bilera egitekoa zuten hau idazterako orduan. Hurrengo aldizkarian emango dizuegu hartutako erabakiaren berri.

Tokiz aldatu dituzte hiri hondakinen edukiontziak

TTIPI-TTAPA

Mendialdea Mankomunitateko arduradunen eskakizunak betez, Bi ahizpak eta Izartegi ondoan kokatutako hondakinen edukiontziak Arraio etxearen atzeko aldera lekualdatu dituzte, auzo-konpost gunearen aldamenera.



Edukiontziak lekuz aldatu dituzte.

Pake Toki elkarteko loteria eskatzeko aukera hilabete amaieran

TTIPI-TTAPA

Pake Toki elkartea itxita da goenez, Gabonetako loteria eskuratzeko modua aldatu egingo da aurten. Azaroaren 27an, 28an eta 29an elkartearen kanpoko atean jarriko dute eskaera egiteko orria. Hori kontuan hartuta zerren-

da osatuko dute eta gero, Leitzako estankotan erosi beharko da, abenduaren 11n eta 12an.

Egun hauetan bakarrik izango da eskaera egin eta erosteko aukera. Jakinarazi dutenez, egun horietatik kanpo ezingo da eskuratu.



TIRIKITRAUKI
**EUSKAL JANTZIETAN
AUKERA HAUNDIA**

Zuloaga Kalea 16, 20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 644 270

emaila: denda@euskaljantziak.com

www.euskaljantziak.com



**TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN,
SALMENTA eta ALOKAIRUA.**

**DISEINU EZBERDINETAKO
PANDEROEN SALMENTA.**



Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE

Tel.: 943 372 817

emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com

'Euskañolitis' bakarrizketa saioa abenduaren 6an

Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean dute hitzordua 19:00etan eta aitzinetik gonbidapenak banatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

2020ko Arte eta Kultura programaren barne, Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, *Euskañolitis* bakarrizketa saioa izanen dute abenduaren 6an, lehenbiziko igandean, Iruritan. Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean dute hitzordua, 19:00etan eta aitzinetik gonbidapenak jaso ahal izanen dira, edukiera bete arte (18:00etan hasiko dira banatzen). Ikusleek, emanaldiaz gozatzeko, ez dute sarrearik ordaindu beharko, gonbidapen hori aski izanen dute.



Oihan Vega.

'Euskañolitis'

16 urtetik goitikoentzako bakarrizketa da. Oihan Vegak umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko dituena.

Fabian Barraza Django's Trioren kontzertua abenduaren 12an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Fabian Barraza Django's Trioren emanaldia izanen da abenduaren 12an, bigarren larunbatean, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan hasita, jazzamanouche edo gipsy jazz (ijito jazz) deritzon estiloko mu-

sikak girotuko du ingurua. Bertaratu nahi dutenek aitzinetik, 18:00etan hasita, gonbidapenak jaso ahal izanen dituzte. Musikazaleek horien truk ez dute deus ordaindu beharrik izanen baina edukiera mugatua denez, ezinbertzeakoak izanen dira.



UTZITAKOA

Folk Ametsetan ziklo borobila

Folk Ametsetan zikloaren barne, azaroko lehenbiziko hamabortzaldian zenbait kontzertu izan dituzte Arizkunenea kultur etxean. Azaroaren 8an, erraterako, segurtasun neurri guztiak zorrotz betez, Feten Feten taldearen folkaz gozatu zuten entzuleek.



JUAN MARI ONDIKOL

Iparragirre akordeoilariaren erretiroa

«Musikari lotuta» bizi izan da Miguel Iparragirre. Gazterik hasi zen akordeoia jotzen ikasten eta 40 urte akordeoi irakasle ibili ondotik, urriaren 30ean hartu zuen erretiroa. Baztan Musika Eskolako ikasleek txalo artean eta akordeoi soinuekin eskertu zioten egindako lana.

BRIKO
LIMPIEZA, SL
MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...
konfidantzazko zerbitzua
T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Emakumeen elkartasuna lantzeko tailerrak egin dituzte Baztanen

TTIPI-TTAPA

Taupada egitasmoaren barne, 14 eta 25 urte bitarteko emakumeen errealitateari buruzko gaitasun kritikoa sustatzeko, mikromatxismoari aurre egiteko estrategiak garatzeko, elkartasuna lantzeko eta jarrera aktiboa sustatzeko tailerrak izan dira Baztanen.

Irailean hasi ziren eta Baztango dozena bat gaztek parte hartu dute. Hasiera batean sei saio aurreikusi zituzten: lehenbizikoa, patriarkatua ezagutzeko; bigarrena, bor-

tizkeriaz solastatzeko; bedurak uxatzeko; filmetako amodioaz solastatzeko; elkarrekin sortzeko eta eraikitzeko.

Gerora, ordea, bertze hiru gehiago egitea erabaki zuten, ahalduz prozesuan sartzeko eta genero sistemaz, feminismoaren oinarriez, sexualitate ereduaz... eztabaidatzeko.

Hala, egitasmoa azaro osoa luzatu zuten eta hurrengo hitzordua azaroaren 27an, hondarreko ortziralean, izanen dute.



ARTXIBOKOA

Baztango parajeetan grabatzen

RTVEko *Escarabajo verde* saiorako grabaketak egiten aritu dira Nafarroako hainbat herritan, tartean Baztanen. Udazkena du ardatz saioak eta horren harira bilduko dira Baztango parajeetako irudiak ere. Saioa eginga dagoelarik, Baztango liburutegira kopia bat bidali beharko dute.



ARTXIBOKOA

Lehen mailako arretaren alde Arizkun

Urdazubin eta Lesakan bezala, Arizkun ere, lehen mailako osasun arreta zaintzeko eta babesteko eskatzeko elkarretaratzeak egiten ari dira. Erratzu, Azpilkueta eta Amairuko kontsultategietakoak, herrikoekin batera, Arizkun bildu ziren azaroan 11n.



ARTXIBOKOA

Baztan Kantuz Arraiozen

Azaroaren 15ean herria kantuz girotzeko hitzordua izan zuten Arraiozen. Eguraldi ederra lagun karrikaz karrika ibili ziren herritarrak. Orain aniztarrei pasatu diete lekukoa eta abenduaren 20an dute hitzordua. Ohi bezala, 12:00etan abiatuko dira plazatik.

FANTXIKE
www.fantxike.com

⇒ Eguberri berexiak... **GU ERE BAI!**

⇒ Ez utzi erosketak azken momenturako.


⇒ Osasun neurri guztiekin, lasai hurbildu guregana.

⇒ Oparitu hurbilekoa.

⇒ Oparitu Fantxiken.

JAIME URRUTIA, 15 BEHEA
T. 948 58 03 12 · ELIZONDO

Producto oficial



Arizkungo NA-2601 errepeidea moldatu dute. UTZITAKOA

Arizkungo bidean egindako moldaketekin kontent da Geroa Bai

TTIPI-TTAPA

Pertalatx auzoko herritarrei eta Arizkun herriko biztanle ugariri NA-2601 errepeide lokalera irtenbidea ematen dien bidea hobetu eta hormigoiztatzeko lanak akitu dituzte azaroan.

Egindako lanekin kontent agertu da Geroa Bai. Oroitarazi duenez, «Geroa Baik Nafarroako Aurrekontu Orokorrei aurkeztutako zuzenketa nominatibo bati esker» egin dira hobekuntza lanak eta horrek «bizilagun ugariaren eguneroko zirkulazioa errazten du, herria gurutzatzeko beharrik

gabe errepeide lokalera irtenbide zuzena eskaintzen baitu».

Konponketa hori egin aitzinetik «bide hori arras egoera txarrean» zegola nabarmendu dute eta «bertatik ezin zen edozein ibilgailu pasatu». Hori guztia kontuan hartuz, kontent agertu da alderdia egindako lanekin, baita lanek iraun bitartean herritarrek izandako pazientziarekin ere.

Hortaz, lerro hauen bidez, «Arakan enpresari egindako lanarengatik eta herritarrei izandako jarrerarengatik» eskerrak eman nahi izan dizkie Geroa Baik.

Zaharren Egoitzako langileek «bigarren mailakotzat dituztela» salatu dute

TTIPI-TTAPA

Francisco Joaquin Iriarte aharren Egoitzako Langileen Batzordea kexu da «oporrez gozatzeari utzi diogu, zor zitzazkigun gehiegizko orduak hartu gabe utzi ditugu, egiteke genituen jaiegunei uko egin diegu, eta, azken finean, dena

eman dugu» adierazi dute. Pandemia honen aitzineko egoera, langileei dagokionez, jada eskasa zela salatu zuten behin eta berriz «beti minioekin lan eginez. Enpresaren aldetik langileen eta aitatxi-amatxien baldintzekiko kezka hutsaren hurrengo da».



UTZITAKOA

Hizkuntza debekua solasgai

Euskaraldiaren harira, Ainize Madariagak Komunitatea hats-bahiturik. Hiztunaren trauma: diagnosia eta palatiiboak liburua, hizkuntza debekatu zioten euskaldun baten lekukotasuna ardatz duena, aurkeztu zuten azaroaren 4an Elizondan.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

OTEIZA
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

MARMOLÉS SOULE

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmollessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKARÓZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
VALLES DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Haur Txokoan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Abenduaren 28tik urtarrilaren 5era bitarte Elizondoko Lanbide Eskolan bilduko dira, 10:00etatik 13:00etara

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Baztango Udalak, Dindaia fundazioarekin eta Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin elkarlanean, hiru eta hamabi urte bitartekoendako Haur Txokoa antolatu du.

Abenduaren 28tik urtarrilaren 5era

Eguberrietako oporraldian eskainiko dute, abenduaren 28tik urtarrilaren 5era, astelehenetik asteartera, zehazki eta izena ematen dutenak Elizondoko Lanbide Eskolan bilduko dira. Goizetan hiru orduz, 10:00etatik 13:00etara, bilduko dira.

Izen-ematea

Taldea atera ahal izateko gutxienez hamar lagun beharko



Haur Txokoa.

dira eta gehienez 20 parte hartzaile izanen dira. Parte hartu nahi dutenek 689 03 50 78 telefonora deitu edo gizartehezitzailea2@baztan.eus helbidera idatzi beharko du. Abenduaren 21a, aitzineko astelehena, izanen da hondarreko eguna. Haur bakoitzeko ordaindu beharreko kuota 20 eurokoa izanen da.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Arizmendi paleta txapelketan irabazle

Nafarroako klubaren arteko paleta goma txapelketako finalak jokatu zituzten azaroaren 8an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Lehenbiziko mailan Dabid Albiasu narbartearra eta bigarren Oronoz-Mugairiko Joseba Arizmendi izan ziren irabazle.

Riechmannen solasaldia martxo-apiril aldera izanen da

Nafarroako Gobernuak hitzaldiei buruz emandako debekuari ondorioz, azaroaren 14an Riechmannen ematekoa zuen solasaldia bertan behera utzi zuten. Baztango Udalak aitzinerago, «martxo-apiril aldera», egiteko asmoa adierazi du.

Bizikletentzako parkea egiten ari dira Lekarozen

Bizikletentzako parkea egiteko lanean ari dira Lekarozen, institutuaren ondoan. Laster txirrindulariek gustuko dutenaz eskualdean bertan gozatu ahal izanen dute. Hortaz, Baztandar txirrindulari taldeak udalari emandako laguntza eskertu nahi izan dio.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 234 • www.ferreteriaquevedo.com



Perurena 2019ko ekainean sartu zen Baztango Gazte Asanbladan. UTZITAKOA

«Trabak traba herri mugimenduak martxan segitzen du»

AURKENE PERURENA BAZTANGO GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

Lanerako gogotsu dago Baztango Gazte Asanblada. Truke azokaz gain, Aroztegiari buruzko solasaldiak, apustuen kontrako ekimena, birziklatze kanpaina, baratze ikastaroa... egin nahi dituzte

N. BAZTERRIKA | ELIZONDO

«Ohituak gaude zerbait zerbaiten truke egiten eta ez dakigu jaso gabe ematen». Hori iraultzeko, musu-truk hartzeko eta emateko azoka antolatu du Baztango Gazte Asanbladak. Horretaz eta bertze hainbat egitasmoz aritu da Aurkene Perurena (Elizondo, 2000). Eta, bide batez, «ikasteko, ekarpenak egiteko eta laguntzeko» gogotsu daudenei dei egin nahi izan die: «etorri asanbladetara, ortziralero 18:00etan».

Noiztik zara Baztango Gazte Asanbladako kide?

Iazko ekainetik, asanblada berpizteko eta gazteon ikuspegitik zenbait gai lantzeko lagun talde bat elkartu ginenetik. Bertako gazteriak kezkatzen gintuen, aisialdirako ohiturek eta kontzientzia faltak. Gainera, hondarreko urteetan gaztetxea bestarako

gune bihurtua zen. Adin tar-tea zabaldu eta ekitaldi gehiago egin nahi genituen. Bizi

ditugun injustiziez eta zapalkuntzez hausnartzeko tokia sortu nahi genuen, forma-

Truke azokak abenduan

Bigarren eskuko arropak eta objektuak biltzen ari da Baztango Gazte Asanblada. Ortzirale arratsaldeetan gaztetxean dute hitzordua eta abenduaren 4a izanen da hondarreko eguna.

Ondotik, azokekin hasiko dira: abenduaren 6an, lehenbiziko igandean, Elizondoko Merkatu Plazan egina dute hitzordua. Hilaren 13an Erratzun bilduko dira (euria eginez gero frontoian), plazan eta abenduaren 20an Anizen,



frontoian. Azoka egunean ez dutela deus bilduko gaineratzearekin batera, azokak egungo egoerara egokituz eta segurtasun neurri guztiak betetz egingen dituztela iragarri dute.

kuntza jasotzeko, ikasteko, hausnartzeko...

Zein da taldeak bailarari egiten dion ekarpena?

Herrigintzatik sortutako ekitaldiak antolatzeak komunitatea eraikitzen du, antolatzen ditugun ekitaldi guztiak hausnarketa baten ondotik datoz, eta horrek erran nahi du, bailara hobetzeko helburua dugula. Adibide gisa, zinea antolatu izan dugunetan haurrak kontent atera izan dira, lagun artean, berokian, txokolatega hartu eta adin aniztasun zabalarekin gozatu ondotik. Zentzu horretan, gazte asanbladak ilusioa eta indarra eskaintzen du.

Zer aldaketa izan dira gaztetxe-ko martxan?

Hutsune batengatik elkartu ginen, gaztetxea zabalteko. Adin eta helburuak zabaldu genituen, auzolana, musika, zinea, hitzaldiak, mahai-inguruak... antolatuz. Eta, aldi berean, barne formakuntzari denbora dezente eskaini diogu, euskal presoei gutunak idatzi dizkiegu... Itxura aldetik ere leihoak aldatu ditugu, barrenetik margotu...

Urriaren 30az geroztik ortziralero bigarren eskuko objektu eta arropa bilketa antolatzen duzue... Zein da bilketaren helburua?

Erabiltzen ez ditugun objektuak behar dituztenei ematea, diru irabazirik gabe, trukatzu. Bilketarekin hasi gara eta abendu aldera Baztango hainbat herritan azokak antolatu ditugu, jendeak behar duena har dezan. Ez dugu

«GAZTETXEA HERRITAR GUZTIEI ZABALDU NAHI DIEGU»

«AURTEN BESTETAKO IRABAZIRIK GABE ARI GARA LANEAN»

utzitakoa eta hartutakoa neur-tuko.

Noiz arte egingen duzue bilketa?
Printzipioz abenduaren 4ra arte, ortziralero, 18:00etatik 20:00etara gaztetxean bilduko dugu.

Zein da orain arte bilketak izan duen harrera?

Inoiz gaztetxera hurbilduak ez zirenak hurbiltzea lortu dugu. Adineko emakume batzuk zertan ari ginen galde-tzera ere etorri ziren eta azaldu genienean 'beraien den-boretan' ere horrelakoak egiten zirela, zoriondu egin gintuzten.

Azoka Eguberriak aldera egitekoa duzue. Gehiegizko kontsumoa saihesteko baliabide bat al da?

Badakigu Eguberriak zertarako diren, eta hori aldatzea ez da horren erraza. Horregatik paratu nahi dugu egun horien bueltan, truke azokak kontsumitzeko modua alda dezakeelako: ez dago dirurik,

ezta langile prekariarik ere, ez dago mandatuak egitera Iruñera joan beharrik... Azoka egunean zentzuz eta beharrezkoa dena kontsumitzeko mezuak zabaltzea pentsatu dugu.

Joan den martxotik elkarte gehienek ekitaldi andana utzi dituzte...

Herri mugimendua ez dute geldiarazi: *Insurgentia* dokumentala eman genuen eta Aroztegiar solasaldiak egiten ari gara. Ez gara gelditu, baina traba aunitz ditugu... Gainera, urteko ekitaldi gehienak herriko bestetako irabaziekin antolatzen ditugu eta hori ere ez dugu izan.

Aitzinera begira zer da aurrekusi duzuen?

Orain Aroztegiari buruzko solasaldiak prestatzen ari gara, baina gerora ideia dezente ditugu: apustuen kontrako ekimena, birziklatze kanpaina, musika komertzialaren kontrako zerbait, baratze ikastaroa...

Lanbide Heziketako ikastetxe integratua egingen dute 2023an

Gobernuaren aurreikuspenen arabera, proiektua 2021ean lizitatu eta idatziko dute eta 2022an egiten hasiko dira

TTIPI-TTAPA | ORONOZ-MUGAIRI

Nafarroako Gobernuak Hezikuntzako kontseilariak, Carlos Gimeno, azaroaren 2an, 2021erako Hazkuntza Azpiegituren Plana aurkeztu zuen. Bertan azaldutakoaren arabera, Hezikuntza Departamentuak 21.569.362 euro erabiliko ditu Nafarroako sare publikoko ikastetxeak eraiki, egokitu edota hobetzeko.

Egingen diren proiektuen artean Baztan-Bidasoko Lanbide Heziketako Zentro Integratua dago, Oronoz-Mugairin eraikiko dena. Erabaki hau,

Nafarroako Gobernuak, aurreko legealdian hartu zuen.

Ikastetxe horrekin Baztan-Bidasoko ikastetxeek dagoeneko egiten duten lana bateratu eta indartu nahi dute, erreferente gisa hartu. Bide-nabar, ikastetxearen eta inguruko bizilagunen beharrak asetzeko autobusentzat espazio propioa egin nahi dute. Hori horrela, 30 plaza-ko apartakalekia eraikitzea aurrekusi dute. Heldu den urtean lizitatu eta proiektua idatziko dute eta 2022an egiten hasiko dira.

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia digitaletan Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	BB BLOK BAT TAILERRAK %15 DESKONTUA frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98
Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Zaldubia indus. B. partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25	SANSIÑENA %5 DESKONTUA olio aldatzetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ALMACO BAZTAN I GAMMA %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu denda T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com
begoviela %25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan %10 DESKONTUA 10 saioko bonoetan Santiago 14, 38 ELIZONDO T. 636 58 30 34	POSADA ELBETE %10 DESKONTUA kartan, 30etik gora txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19	GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA %5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoan Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01
nafarpress %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	ARGIBEL PTIKA ESKAITZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertz pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91	



Irail hondarrean egin zuten Lego tailerrean. ONDIKOL

Haurrendako sormen tailerra abenduaren 12an

Arizkunenea kultur etxean dute hitzordua larunbatean 11:00etatik 12:30era

TTIPI-TTAPA

Bortz eta hamabi urteko haurrek Lego piezak erabiliz Egu-berrietako mundua sortzeko aukera izanen dute abenduaren 12an, larunbatean, izanen den ikastaroan. Olentzero eta tankerako pertsonaiekin sormena landuko dute, metodologia librea eta eraikuntza

gidatua erabiliz. Discover Bricksek emanen du ikastaroa eta 11:00etatik 12:30era bilduko dira Arizkunenean. Plazak mugatuak izanen dira eta aitzinetik izena eman ahal izanen da info@discoverbricks.es helbidera idatziz edo 636 47 99 60 edo 636 45 07 45 telefonora deituz.

Ipuin-kontaketa antzeztua ortzegunean Elizondon

TTIPI-TTAPA

T Diferencia taldearen eskutik, Maite Redinek egindako eta Ainhoa Ruizek antzeztutako *Printzesa edo igela nire aukera* ipuin antzeztuaz gozatzeko aukera izanen dute ortzegunean, azaroaren 26an, Elizondon. Haurrendako ikuskizuna izanen da eta Arizkunenea kultur etxean izanen da ikusgai. Arratsaldean, 17:00etan, dute hitzordua eta edukiera mugatua izanen da. Hori kontrolatzeko, Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuek aitzinetik 689 03 50 78 telefonora deituz

izena emateko deia eginga zuten.

Sinopsia

Ipuin antzeztu honetan pertsonaiek ipuinen bidez gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, bizikidetzatratu berdintasuna eta diskriminazio eza lortzeko ekimen eta irtenbideak proposatzen dituzte. Estereotipoak hautsiko dituzte. Printzesa honek ez du inork salbatzea nahi, ez ditu azaleko ametsak izanen eta printzea bere kidea izanen da, bere bikotea eta laguna.



ARTXIBOKOA

15 herri Euskaraldian murgilduta

Baztango Euskaraldia Batzordeak, *Euskaraldia Baztanen*, 15 egun, 15 herri egitasmoa abiatu zuen urri hondarrean. Herriz herri Euskaraldiarekin bat egin eta argazkia atera zuten herri guztiek (argazkian zigatarrek). *Gehiago, gehiagotan, gehiagorekin* euskaraz solastatzen ari dira. Ea ondotik ohitura horri eusten dioten!

Balkoietan globoak paratzeko deia egin dute Zigan

Azaroaren 15ean Euskaraldirako argazkia atera zuten zigatarrek. Egitasmoarekin bat egin zutenek, abenduaren 3an, Euskararen Egunean, etxeetako leihoak eta balkoiak globoz apaintzeko deialdia luzatu zieten herritarrei. Animatu!

'Nafarroa filmatzen' hirugarren tailerra Isabel Coixetekin

Meliton Estudioak Isabel Coixet zinemagilearekin batera antolatu du *Nafarroa filmatzen* tailerraren hirugarren edizioa. 2021eko edizioa ekainaren 3tik 12ra Lekarozen izanen da. 2019an ikastaroa Ashar Farhadien eskaini zuen eta 2020an Oliver Laxek.



UTZITAKOA

Ziga eta bertako bitxikeriak pantailan

Navarra Televisiónek Ziga hobe ezagutzeko aukera eman zuen azaroaren 5eko saioan. Alfonso apaizak, Zigako eta Zigaurreko Teresak, Juana Mari Gortarik, Felix eta Joxean Etxeberria aita-semeek, Martintxo Mendiburuk... ageriko egin zuten herriaren edertasuna.

Altzari bakoitzaren atzean mila istorio daude. Ez utzi botata.

Eman iezaiozu amaiera polit bat



BAZTAN

Zure mankomunitateko doako bilketa zerbitzua erabil ezazu

672 045 734

BORTZIRIAK

Utz ezazu Alkaigako industrialdean dagoen garbigunean edo erabil ezazu doako bilketa zerbitzua.

672 045 734

MALERREKA

Utz ezazu garbigune batean edo zure mankomunitateko doako bilketa zerbitzua erabil ezazu.

672 045 734

MENDIALDEA

Utz ezazu garbigune batean edo zure mankomunitateko doako bilketa zerbitzua erabil ezazu.

948 510 444

Sagarrondoa landatu dute Etxeberriko atarian

Duela 430 urte herrian egindako bilkura garrantzitsua eta ondotik eragin zuen sorgin ehiza gogoratu nahi dituzte

MARIFA ETA KORO

Agiri zaharretan bilduta dago duela 430 urte gure herrian egin zen bilkura garrantzitsua bat: denbora haietan Zugarramurdi ez zen herri libre, Urdazubiko monastegiaren menpean zegoelako, eta 1580. urteko otsailaren 18an Etxeberriko atean herri-bilkura bat egin zuten. Bertan erabaki zuten bizi baldintzak hobetzeko eskaria egitea monasterioan, eta herriaren ordezkari bezala goiburutar bat izendatu zuten.

Horren ondorioz, badakigu 28 urte beranduago, eta monasterioko abadeak agindurik, sorgin-ehiza bat antolatu zutela, hainbat herritar preso hartuz, eta hain zuzen ere, Etxeberriko atean egin zuten bilkuran egondako aunitz eraman zituzten, horien artean Goiburuko Migel eta Joanes.

Gure herrian gertatuakoa ez zen kasu isolatua izan, Iparraldetik etorri zen (ordurako Ziburu, Senpere, Sara, Itsasun... gisako gertakariak sofritzen ari ziren), eta Zugarramurdi-koak izandako oihartzunaren

ondotik, beldurra eta mesfidantza herriz herri hedatu ziren, eta toki frankotan komeria latzak izan zituzten (Erratzu, Elgorriaga, Arraioz eta bertze zenbait).

Guztiaren ondotik, herritarren pentsamoldea aldatu zen, eta usaian 'sorgina' herritarrek estimatzen zuten pertsona izatetik, 'pertsona gaixtoa' izatera pasatu zen.

Gauzak egiazki nolakoak izan ziren badakigu gaur egun (jende haiek sekulako injustizia jasan zutela), beraz, beren izen ona berreskuratzeko momentua ailegatu da.

Ekitaldi xumea

Bi gertakari historiko hauen oroimenez, azaroaren 7an ekitaldi xume bat egin zen Etxeberriko atarian: sagarrondo bat landatu zuten gaur egungo goiburutarrak direnek (1580. urteko hartan ere hala egin zutelako), eta preso hartutako 31 lagunei lore-eskaintza bat egin zieten, bakoitzaren izena banan-bana aipatuz, eta beren etxeko ateetan lore-maxota bat jarritz.



Gaur egungo goiburutarrak diren Maitane eta Mattin sagarrondoa landatzen.



Loxe-maxotak jarri ziren etxeetan.



Sagarrondoaren inguruan loreak.

Publikorik gabeko grabaketa baten bidez aurkeztu dute 'Sugarren mende' liburua

MARIFA ETA KORO

Sugarren mende liburuaren aurkezpen publikoa lezean egiteko intentzioa zuten, baina azkeneko momentuan lezearen erabilera debekatu zenez, publikorik gabeko grabaketa baten bidez egin zuten aurkezpena.

Gure historia ezagutzea maite duen jendearen gustakoa izanzen da segur aski Asisko Urmenetaren liburu berezi hau, sorginkeria aitzakia hartuta, garai hartako gertaera ekonomiko, politiko, eta sozial batzuk hobeki ulertzen baitira.



Asiskoren 'Suharren mende' liburua.

Izugarrizko lertxoin-pasak izan dira azaro hasieran

Azaro hasierako egunetan izugarriko lertxoin pasa izan da, gau eta egunez. Hala ere, segur aski egun ikusgarriena azaroaren 8a izan zen, goiz horretan denbora guztia lertxoien karrankak sumatu zirelako, eta zerura begiratz, edozein tokitan ageri ziren.

Dantxarineko dende irekita segitzen dute

Bezeroen jautsiera nabarmena izan arren, batzuek lanean segitzen dute eta etxerako zerbitzua ere martxan jarri dute

ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarineko dende irekita segitzen dute. Biok eta Peiok benta bana irekita mantendu dituzte, bertze guztiak itxiz. Enpresa txikiagoak ere irekita mantendu dituzte, nahiz eta bezeroen jautsiera nabarmena izan. Gainera, batzuek etxerako zerbitzua ere martxan jarri dute; erosketak telefonoz edo web orri bitartez eskatu eta etxera bidaltzen dituzte. Hortaz, oraindik bada mugimendua benten auzoan.

Dantxarinean jendarmeen kontrola

Nahiz eta iparraldeko mugak irekita segitzen duen, azaroan jendarmeak agertu eta aduanan jarri dira, kontrolak eginez.



Aspaldiko zainduena dago muga.

Hemendik pasatzen denari iparraldean ibiltzeko baimena erakutsiz iparralderat pasatzen den jendearen kontrol bat eramaten dute, baita handik honat pasatzen denarena ere. Frantziako estatuak konfinamendua ezarri zuenez, iparraldeko mugimenduak mugatuta daude.

Lehen arretaren aldeko elkarretaratzea egin dute osasun etxearen aitzinean

Berriz ere elkarretaratzea izan zen osasun etxearen aitzinean azaroaren 11n. Hainbat herritar azaldu ziren lehen arreta-

ren alde egiteko. Honela, hurrengo egunetan egingen diren elkarretaratzeetara jendea hurbiltzeko deia egin dute.



ARANTXA ETA IRAIA

60 herritar Euskaraldian parte hartzen

Azaroaren 20an hasi zen Euskaraldia eta Urdazubin ere naba-ritu da ekimena. Aitzinetik, herritar andana bildu zen Euskaraldiko hizkiekin argazkia ateratzeko. Herriko hainbat erakunderen ordezkariak agertzeaz gain, herritarrek ere hurbildu ziren ekimena babestera. 60 urdazubiarrek eman dute izena.



ARANTXA ETA IRAIA

Kilo eta erdiko onddoa atzemana

Udazkeneko harribitxiak ditugu onddoak eta Juan Luis Sarratea biltzaileak urtero atzematen du onddo bereziren bat. Aurtengoan ere egin du, kilo eta erdiko onddoa atzeman baitu. Gainera, bertze onddo bitxi bat ere bildu du, enbor berean sortutako zortzi onddo dituen. Aurten ere izanen du zer jan etxean.

Kutxabank

EUSKARALDIArekin

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

kutxabank

k



Eguberrietako egutegiak 10 euroren truke eskura daitezke. UTZITAKOA

Eguberrietako txokolatezko egutegiak salgai

Ikastetxeari bultzada ekonomikoa ematearren, Ikastolak Eguberrietako txokolatezko egutegiak salgai jarri ditu

TTIPI TTAPA

Urteroko hitzorduak bertan behera gelditu ondoren, Olhain Ikastolak bere diru sarrerak murriztuak ikusi ditu. Hortaz, Ikastetxeari bultzada bat emateko, Eguberrietako txokolatezko egutegiak 10 eurotan salgai jarri dituzte.

Egutegi gozo honetan soilik abenduaren 1etatik 24erako egunak daude, eta egun bakoitzak leihotxo bat du eta barruan txokolatezko bonboi bat izanen da, ume eta ez hain umeei, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera agudogo iristeko.

Egutegiak, ardoa eta kopak ere erosi daitezke

Egutegia, jada, hainbat saltokitan salgai daude: Sarako harategian, *Pleka* trinketeen, *Pradere* okindegian, Senpereko *Euskal Vrak* eta Zuraideko *Goxoki* ile-apaindegian.

Nahi duenak, eskaera internetez egiteko aukera ere bada olhain.eguberri@gmail.com helbidean.

Egutegiak 10 euroren truke eskuratu ahal izanen dira.

Olhain Ikastolatik jakinarazi dutenez, 6 kopa eta bi botil arnoko lotea ere erosi daiteka, 45 euroren truke.

'Mapa Galduak' festibala bertan behera etxeratze aginduaren ondorioz

Azaroaren 20an, 21n eta 22an Usopop elkarteak egitekoa zuen *Mapa Galduak* festibala bertan behera utzi behar izan dute.

Hiru egunetako ekitaldiak antolatuak zituzten: Zeharkako bideak, Izaki gardenak, Mugarri 25, Amorante, La

jungle, Cocanha eta Slift taldeen kontzertuak eta Sarako herrian barna ibilbide misteriotsu bat hitzartuak zituzten. Baina, tamalez, Frantziako Estatuak emandako etxeratze aginduaren ondorioz, egitekoa zen festibala bertan behera gelditu da.

Neurri autoritarioak salatzen elkarretaratzea egin zen azaroaren 7an

TTIPI-TTAPA

Covid-19aren errealitatea eta garrantzia kendu gabe, Frantziako estatuan ezarri diren neurri autoritarioak salatzen elkarretaratzeak egin zituzten azaroaren 7an Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hamairu herritan, horien artean Saran.

Covid-19, jendea lerrokatzen ko parada *ustekabe* lelopean larunbatean, azaroaren 7an, 17:00etan izan zuten hitzordua eta herritar batzuk bildu ziren Sarako Herriko Etxe parean.

Herri gehienetan asanblada irekiak egin zituzten eta bertan Frantziako Gobernuak pandemiaren aurrean egindako kudeaketa gogor kritikatu zuten.

Neurri zorrotzegiak

Urriaren 23 gauerditik aitzinera herritarrek 21:00etarako etxeratu behar dute eta komertzioek ere ordu horrtarako itxi beharko dituzte. Debekua, gutxienez, sei astez indarrean egon dela jakinarazi zuen Jean Castex lehen ministroak, hau da, abenduaren

4a arte. Etxeratze aginduan 21:00etatik 6:00etara da eta tarte horretan karrikara atera ahal izateko herritarrek ziurtagiri bat behar dute.

Hurrengo hitzordua

Ipar Euskal Herriko zenbait herrietan ekimenarekin aurrera jarraitzeko hautua egin zuten. Saran, zehazki, azaroaren 14an 17:00etan herriko plazan asanblada irekia egiteko hitzordua adostu zuten. Bertan, 2019ko kontuak nahiz hiru proiektu aurkeztu zituzten.

Hiru proiektu

Proiektu bakoitza aitzinera eramateko lan taldeak osatu nahi dituzte. Lehendabizi lurra eta etxebizitzaren merkaturaz aztertzen *Behatoki* bat sortu nahi dute. Bigarren, kanposantua kudeatzeko eredu propio bat eraiki; eta, azkenik, Sarako herrian euskara bultzatzeko Herriko Etxetik sortu duten *Euskara plazara* taldearen kudeaketa.

Bertzalde, herritarrek azken ekimen honetan parte hartze-
ra animatu nahi dituzte.



ARTXIBOKOA

Haurtzaindegi eta jantokia martxan

Azaroa hasieratik haurtzaindegiko eta jantokiko zerbitzuak berriro ere martxan daude. Sei urtetik goitiko umeek, derrigor, maskara erabili beharko dute. Hortarako, Sarako herriak ume bakoitzari lau maskara garbigarri emanen dizkie. Maskara hauek, jada, eskuragarri daude.

Hazkurri bankoa azaroaren 27an eta 28an egingen dute

Herriko bi supermerkatuetan egiten den biltzeari esker inguruetakoko behartsuei 6.000 apairu ematen zaizkie

JEAN-LOUIS BESSONART

Urte guziz azaroaren hondarean, hazkurri bankoaren alde, Senpereko bi supermerkatuetan egiten den biltzeari esker inguruetakoko behartsuei 6.000 apairu baino gehiago ematen zaizkie. Zorigaitzez ekintza hori zinez beharrezkoa da gaur egun, pobrezia buruz joaiki den jendetza emendatzen ari baita. Bizi dugun osagarri larrialdiarengatik usaian beren laguntza ekartzen zuten borondate onezko jendeen eskasian gelditzen dira. Alta borondate onik gabe biltze

hau ez da egiten ahalko. Senpertarrei dei eginez, sokoriarren dei adarra entzunarazi nahi digu hazkurri bankoak aurtun guk segida har dezagun, azaroaren 27an eta 28an. Helburua da 30 presuna aurkitzea, Gurutze Gorri eta Lyon's Club elkarteak dituen hamar lagunei juntatzeko gisan. Hiru orenez, Netto eta Intermarche saltegien aitzinean egon beharko dute. Bihotz ona erakutsi nahi dutenek deitu lehenbait lehen Senpereko CCAS delakora: 05 59 54 10 19 edo ccas@senpere64.fr.



Administrazio zerbitzuek idekirik segitzen dute, baina hitzordua eskatu behar da.

Herriko Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuak aldatu dira konfinamenduan

JEAN-LOUIS BESSONART

Hetsialdi honekin neurri berriak hartuak izan dira Herriko Etxean, hona larriki zer diren. Administrazio zerbitzuek idekirik segitzen dute eta publikoa errezebitzen dute hitzordua emanaz. Herriko Etxeko harrera idekirik dago. Herrizaintzak eta tekniko zerbitzuek beren lana aitzina segitzen dute. Mediateka ze-

rratua da baina erreserbatze eta erretiratzea ahalko dira: Liburu, Cd, DVD eta aldizkariak 0610455905 telefono zenbakira deituz edo mailez mediateque@senpere64.fr. Elkartetxea, Oihartzuna etxea, Larreko kultura gunea publikoarentzat zerratuak dira. Gantxiki kiroldegia, bakarrik ikasleeri idekia da, aldiz aintzirako zerbitzuak hetsiak dira.

Herriko ekoizleen produktuak saski batean salduko ditu ikastolak

Ekimen polita ezarri dute plantan ikastolako arduradunek, Eguberri eta Urtatsak aitzin. Senpertar ekoizleen produktuak eskuratzen ahalko dira, 50 eurotan saski bakoitza. Delako otarra ongi hornitua da eta opari gisa zernahi gauza aurki daitezke, hala nola, odolki, garagardo, erreximena, ezti, dutea, ardi gasna, ezpeletako biperra, bizkotxa, polenta bio, ahatekia baita hur karamelizatuak ere. Holako oparia eskuratuz, etxe ondoko ekoizleei lana ematen da, irabazi ttipi bat segurki ikastolarendako eta atsegin handia erosleendako. Manaketa abenduaren 2a aitzin, senpereko.saskia@gmail.com edo 06 74 56 93 74 (Txomin) egin behar da eta saskien banatzea abenduaren 12tik le-kora.



Bertzalde, Zaldubi-Drive taldeak jakinarazi du azaroaren 27ko Tajine Oilaskoa gibelaratu dela udaberrirrat, aldiz, Bildotsa Navarrin abenduaren 18rako mantenduko dutela, beti ere baldintzen arabera. Honen berri geroxago.

Biztanleen kontaketa urtarilaren 21etik otsailaren 20ra

Ohiko ekintza hau iraganen da urtarilaren 21tik otsailaren 20a artean. Lan horretarako 17 presuna xerkatzen dituzte. Eskaerak Herriko Etxerat igorri behar dira abenduaren 1erako. Xehetasunak, Herriko-Etxeko web gunean (etatcivil@senpere64.fr).

Euskaraldia abian da abenduaren 4ra bitartean

Euskaraldia abian da azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Ekimen honek gure hizkuntzan solas egitera bultzatu nahi gaitu, izan ahalbizi edo *belarriprest*. Helburua da egunerokoan euskara erabil dezagun ahalik eta gehien, ez bakarrik garai berezi honetan, baita urtean zehar ere.





Vicente, Rekondo, Saralegi anaiak eta Oier Kañamares izanen dira finalean.

Nafarroako aizkora txapelketa nagusia Donezteben

Abenduaren 6an jokatu den jaialdian, emakumezkoen eta gizonezkoen arpana txapelketak ere jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako aizkora txapelketa nagusiaren finala jokatu dute abenduaren 6an, igande eguerdiko hamabietan Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan, ate itxiekin. Urriaren 4an Lekunberrin jokatuak kanporaketan txartela lortu

zuen boskotea ariko da lehian: Iker Vicente (Otsagabia), Jon Rekondo (Leitza), Eneko Saralegi (Leitza), Ruben Saralegi (Leitza) eta Oier Kañamares (Aroztegi).

Finaleko ohiko lana egin beharko dute: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko

moztea eta pronostiko guztien arabera, Iker Vicente faborito argia da bere seigarren txapela janzteko.

Final honekin batera, Nafarroako gizonzkoen eta emakumezkoen arpana txapelketak ere jokatu dituzte Doneztebeko jaialdian. Hau idazterakoan, bakoitzean bi bikotek emana zuten izena: gizonzkoetan Josetxo eta Iñaki Barberena eta Adrian Berrueto eta Alberto Oteizak. Emakumezkoetan, berri, Iraizoz ahizpak eta Alaitz Olano eta Olatz Altunak. Beraz, ez da eskualdeko kirolaririk.

Jautsiera kanporaketa

Lekunberriko aizkora kanporaketak bi jautsiera ere ekarri zituen, azken bi postuetan sailkatutako Goizeder Belza eta Xuban Kañamares bigarren mailara jaitsi baitira.

Azken hirugarren izan zen Joxean Etxeberria zigatarak, berri, lesio baten ondorioz kanporaketan parte hartzerik izan ez zuen Juan Jose Lopezen kontrako jautsiera kanporaketa jokatzeko eskatu zuen. Nafarroako Herri Kirol Federazioetik jakinarazi dutenez, kanporaketa honen data ez dago zehaztua oraindik.

Bigarren mailako finalak data zehaztu gabe dauka oraindik

TTIPI-TTAPA

Lehen mailako aizkora txapelketaz gain, 2020. urteari dagozkion bertze bi txapelketa ere jokatzekoak dira oraindik Nafarroan: bigarren mailako aizkora txapelketa eta arpana txapelketa mistoa.

Bigarren mailako finalistak Julen Olano (Leitza), Jesus Etxeberria (Beintza-Labaien), Txomin Amundarain (Arribe), Asier Pellejero (Areso) eta Jon Telletxea (Beintza-Labaien) dira.

Nafarroako Arpana Txapelketa Mistoa urriaren 31n jokatzekoa zen baina gibelatu egin behar izan zuten. Txapelketa honetan hamar bikotek izena emana dute.

Nafarroako Herri Kirol Federazioetik jakinarazi dutenez, txapelketa hauek abenduko bigarren hamabostaldian edo, beharbada, datorren urtean ere joka daitezke. Patxi Mingegia eta Jacinto Etxekonaneren arteko jautsiera kanporaketa ere egin beharko da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Albiasu eta Arizmendi txapeldun paletan

Bost eta erdiaren barrenean, Nafarroako klubaren arteko paleta goma txapelketako finalak jokatu zituzten azaroaren 8an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Dabid Albiasu narbartearrak lehenbiziko mailan txapela jantzi zuen eta bigarren mailan Oronoz-Mugairiko Joseba Arizmendik irabazi zuen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Olano eta Canabal txapeldunorde eskuz

Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu ziren eskuz banakako senior mailako Nafarroako txapelketako finalak. Irurtzun taldean ari den Anartz Olano aresoarra eta Oberenako Oian Canabal igantziarra (argazkian) txapeldunorde izan ziren lehen eta bigarren mailan, Irurita eta Oskozen kontra galduta.



Daniel Saldias txapelarekin, podiuma osatu zuten Marturet eta Martinekin. Eskuineko argazkian, harri-jasotzaileak. UTZITAKOAK

TXINGA-ERAMATE TX.

EMAITZAK

1. Daniel SALDIAS	17p., 2'95m
2. Iosu MARTURET	8p., 1/4, 1'30m
3. Imanol MARTIN	7p., 3/4, 5'50m
4. Jesus GOÑI	6p., 3/4, 2'45m
5. Iker GOLDARAZENA	5p., 3/4, 3'40m
6. Oskar AGUAS	4p., 1/4, 1'30m

HARRI-JASOTZE TX.

EMAITZAK

1. Jon IRAÑETA	5.887,5 k.
2. Alvaro ZUGARRONDO	4.537,5 k.

Saldias garaile Nafarroako txinga-eramate txapelketan

Arraioztarra erraz gailendu zen azaroaren 7an Irurtzunen

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 7an Irurtzungo pilotalekuan jokatu ziren Nafarroako txinga-eramate eta harri-jasotze txapelketak. Daniel Saldias arraioztarra eta

Jon Irañeta suertatu ziren txapelkun, hurrenez hurren. Txinga-eramate txapelketan, egin beharreko lana 50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egitea zen eta iaz ere txapelkun izan zen Daniel Saldias arraioztarrak ez zuen areririk izan. 17 plaza eta 2,95 metro egin zituen, bigarren izan zen Antsoaingo Iosu Martureten lana bikoiztuz. Berriozarko Imanol Martinek osatu zuen podiuma eta Jesus Goñi

lekaroztarra laugarren izan zen.

Emakumezkoen txapelketa ere egun berean egitekoa zen baina ezin izan zuten antolatu partaide faltagatik.

Nafarroako harri-jasotze txapelketa ere jokatu zen Irurtzunen. Bi harri-jasotzaile bertzerik ez ziren izan. Josetxo Urrutia leitzarrak ezin izan zuen parte hartu lesio bat dela medio. Jon Irañeta erraz nagusitu zitzaion Zugarrondori.



auditekcentroauditivo.com



Zure hurbileko kuttunak entzutearen gozamenak

Auditeken zuri egokituriko irtenbide eta tratamenduekin bidez komunikatzen laguntzen zaitugu.

EZ GALDU AUKERA, LEHENENGO KONTSULTA DOAIN

BAI, HITZORDUA NAHI DUT:

IRUN
Paseo Colón, 27
943 633 305

HERNANI
Elkano Kalea, 35
943 386 962



AZAROAK 26 - ABENDUAK 10

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

SOLASALDIAK

IGANTZI

'Zazpiak bat, Euskal Herriko armariaren historia' hitzaldia

Baratzondon, abenduaren 3an, 19:00etan.

BERA

'Uscaldunak garen ezquero' hitzaldia

Kultur etxeko erakusgelan, abenduaren 2an, 19:00etan.
Berako udal artxiboan gordetako 1822ko eskuizkribuaz ariko da Mikel Taberna.

IKASTAROAK

LEITZA

'Nola zaindu gure osasuna garai zail honetan'

Atekabeltzen, azaroaren 26an, 19:00etan.

'Kutsadura elektromagnetikoaren eragina gure osasunean eta ingurumenean'

Atekabeltzen, abenduaren 17an, 19:00etan.

TAILERRAK

EZKURRA

Adinekoen bizi kalitatea aztertzeko tailerrak

Iratxo ludotekan, abenduaren 2ra arte asteazkenero, 11:00etatik 12:00etara.

ELIZONDO

Haurrendako sormen tailerra

Arizkunenean, abenduaren 12an, 11:00etatik 12:30era.
Izen-ematea: 636 47 99 60 edo 636 45 07 45.

Haur Txokoa

Elizondoko Lanbide Eskolan,



LANKU

IGANTZI 'Bakean dagoena bakean utzi'

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren eskutik.
Baratzondon, abenduaren 7an, 19:00etan.

abenduaren 28tik urtarrilaren 5era, 10:00etatik 13:00etara.
Izen-ematea: 689 03 50 78.

IGANTZI

Haurrentzako ekitadiak Kultur Egunetan

Abenduaren 6an, 16:00etatik aitzinera frontoian.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

Ipuinen txokoa

Haizea Loiraren eskutik.
Asteartero, 11:00etatik 12:00etara.

ELIZONDO

'Printzesa edo igela nire aukera'

T Diferencia taldearen eskutik.
Arizkunenean, azaroaren 26an, 17:00etan.

IRURITA

'Euskañolitis' bakarrikzeta saioa

Oihan Vegaren eskutik. Damaso

Zabalza Gizarte Bilgunean, abenduaren 6an, 19:00etan (gonbidapenak 18:00etatik aitzinera).

BERA

'Ez dok hiru'

Kultur etxean, azaroaren 29an, 18:00etan. Sarrera: 3 euro.

'Zutuberrak' antzezlan

Kultur etxean, abenduaren 6an, 18:00etan. Sarrera: 3 euro.

'Txor txor' bakarrikzeta saioa

Kultur etxean, abenduaren 4an, 19:00etan. Bortzirietako Euskaraldiaren itxiera ekitaldia, Nerea Arriola aktorearekin.

IGANTZI

Eñaut Agirre eta Unai Agirre bertsolarien saioa

Baratzondon, abenduaren 4an, 19:00etan.

'Bakean dagoena bakean utzi' bakarrikzeta

Baratzondon, abenduaren 7an, 19:00etan.

LESAKA

'Kimera'

La Banda taldearen eskutik.
Harriondoan, abenduaren 13an, 17:30ean. Sarrera: 5 euro.

'Gaztelondon zer berri'

Keinu-Leihoak Antzerki Jardunaldien baitan.
Harriondoan, abenduaren 3an, 18:30ean.

'Tribiz, baserri galdue'

Keinu-Leihoak Antzerki Jardunaldien baitan.
Harriondoan, abenduaren 5ean, 18:30ean.

KONTZERTUAK

LESAKA

Kea Ahots Taldea

Harriondoan, azaroaren 28an, 19:00etan. Sarrera: 8 euro.

IGANTZI

Petti

Baratzondon, abenduaren 5ean, 19:00etan.

Nire aukera

«Neskak ginelako ez zigutela entrenatuko esan ziguten»

IRATI AROZENA ALMANDOZ GOIZUETARRA



«Neska bizia eta alaia» da Irati Arozena Almandoz (Goizueta, 1987). Mendia eta esku pilota ditu zaletasun eta lane-tik kanpo izaten duen den-bora librean kaskoz kasko edo pilotalekuan ibiltzen da: «asteen bi egunez pilotan entrenatzen dut eta korona-birusak eragindako egoera honetan asteburuetan mendira joateko aprobetxatzen dut...».

Ttikitan hasitakoari, helduaroan segida

Goizuetar askok bezala, pilotarekiko lotura aspaldi eraiki zuen Arozenak. «Tiki-ttikitan» Leitzako pilota eskolan eman zuen izena eta urte sailaz bertan aritu zen, gainerako neska-mutikoekin batera.

Urteak aurrera joan ahala, ordea, oztopoak izan ditu eta horiek tarteko «behartuta» utzi behar izan zuen horren

gustuko zuen zaletasuna: «nik ez nuen utzi nahi. Neskak ginelako ez ziguten lagundu nahi izan, esku pilotan ez zigutela entrenatuko esan ziguten eta ez genuen aurrera egiteko aukerarik izan». Hori horrela, «azken urteetan» utzia izan du.

Orain, Umore Onak ateari ireki eta emakumezkoak animatu diren momentuan «bi aldiz pentsatu gabe» izena ematea erabaki zuen: «astear-te arratsalde batez entrena-tzailea haurrak entreatzera zihoala bi neska esku pilotan hastekoak zirela esan zidan... Egun horretan bertan, lana bukatu eta frontoira azaldu nintzen izena ematera... horrelaxe hasi nintzen».

Lau emakumezko ilusioz gainezka

Urri hasieraz geroztik, Ainhoa Zabaleta, Mayi Zelarain eta

Maria Eskuderorekin batera, garai bateko oroitzapenak berpizten eta lagunartean entrenatzen ari da Arozena: «asteen behin hasi ginen eta orain asteen bitan elkartzen gara». Euren artean «harreman oso ona» dute eta «oso pozik, ilusioz» ari direla gaineratu du.

Berriz ere pilotalekuan tar-te atsegina pasatzeko eta kirola egiteko modua harra-patu du goizuetarrak. Hortaz, pilota gustuko duten inguru-ko herritarrak ere animatu nahi izan ditu: «herrian bertan ongi pasatzeko aukera poli-ta dugu».

Egoera aldatu, babesa lortu

Gero eta gehiago dira emakumezko pilotariak eta hori ikusteak «poz handia» ematen dio goizuetarrari. Berezi-ki, aldaketa horren lekuko izan denez, estimuz eta begi onez jo du Umore Onaren aukera: «eskerrak egoera aldatu den. Lehen ez bezala, gustuko duzun kirol batean babesa izan badugula ikusi dugu...».

Babes horrek ilusioa pizte-ko eta aurrera egiteko indarra ematen dio. Hortaz, «aurre-rago» Master Cup edo gisa-ko txapelketetan parte hartzeko aukera ez dute bazter-tu: «esperantza beti eduki behar da eta...».

Momentuz, ordea, ez du horretan jarria begirada. Sor-tu zaion aukera hori baliatzea eta ongi pasatzea du lehen-tasun.

Egunerokoa gozamen

Ez pilotalekuan bakarrik, kan-poan ere «herriko lasaitasu-naz» eta gustuko dituen inguru ederrez gozatzen segitu nahi du. Hain zuzen «eguneroko martxa horretan ongi segitzeak» egiten due-lako zoriontsu. Eta zorionta-sun horri esker, alai eta pozik bizi delako.

«AURRERAGO
TXAPELKETETAN
PARTE HARTZEKO
ESPERANTZA DUGU»

«OSO HARREMAN
ONA DUGU ETA
ILUSIOZ ARI GARA
ENTRENATZEN»

ELIZONDO

Trikidantz taldearen disko aurkezpena

Arizkunenea kultur etxean, abenduaren 3an, 18:00etan. Sarrerak erreserbatzeko: 685 63 31 95.

Fabian Barraza Django's Trioren kontzertua

Arizkunenea kultur etxean, abenduaren 12an, 19:00etan (gonbidapenak 18:00etatik aitzinera).

KIROLA

LEITZA

Felisa Pellejero frontenis txapelketa

Amazabal pilotalekuan, azaroaren 28an.

DONEZTEBE

Nafarroako lehen mailako aizkora eta gizonezkoen eta emakumezkoen arpana txapelketak

Ezkurra pilotalekuan, abenduaren 6an, 12:00etan. Xehetasunak 46. orrialdean.

AZOKAK

ELIZONDO

Truke azoka

Merkatu plazan, abenduaren 6an.

ERRATZU

Truke azoka

Plazan (euria eginez gero frontoian), abenduaren 13an.

ANIZ

Truke azoka

Frontoian, abenduaren 20an.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LABAIEN. Zaharberritzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

ERRENTAN EMATEKO

AZKAINE. 85 m²ko etxe bat errentan emateko, baratze batekin. 850 euro hilabetea. Xehetasunak: azkaine-lapardi@gmail.com.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. 150 m²ko pabiloia salgai. 130.000 eurotan. ☎648 26 56 63.

LANA

ESKARIAK

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean jubilatze dagoen bat baserri huts batean bizitzeko prest mantentze- lanak egitearen truk. Esperientziaduna eta ikastaroak eginak: mantentze-lanak, lorezaintza... ☎688 89 52 06.

Adinekoak zaintzen esperientzia duen 37 urteko emakumezkoa lan bila, atsegina, erreferentziekin eta prestatua. Sortzez nikaraguarra, paporekin. Lau urtez adinekoekin lanean aritua. ☎602 33 06 85.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakumeak opari. ☎626 33 53 98.

MOTORRAK

SALGAI



BMW X5 salgai. Gasolioa. Extrak. Egoera onean. Prezio negoziagarria. Deitu goizez. ☎679 50 77 81.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

Jatorriz amerikarra den neska batek **ingleseko** mintzapraktika eta gra-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

matika **eskolak** ematen ditu **online**. Ordenagailuz, Skypez, ematen ditu. Idatzi Whatsappez. ☎640 65 04 22.

DENETARIK

SALEROSKETAK




90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairua** salgai. Ohatze bakoitza 300 eurotan eta armairua 150 eurotan. ☎673 54 87 67.

BERA. Bi piezatakoko zur trinkoko arasa eta zur trinkoko mahai zabalgarria (8 pertsonentzat zabal daiteke) sei aukirekin salgai. Arasa 1.200



eurotan eta mahaia 2.000 eurotan. Egoera onean. ☎681 22 59 17.



Habia zuriko ohea salgai. 2 oherekin. Goiko ohea 90x190 cmkoa eta beheko ohea koltxoia bane (80x180). 202 cm luze eta 100cm zabal. Egoera onean. 300 euro. ☎666 35 73 97.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,23/3,33
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,00/8,30
- 8-10 kilokoak: 5,60/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 38 €

Zerri gizona 1,204 €

Zerramak 0,400€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua azaroaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)

SANTESTEBAN TAILERRAK

DACIA DUSTER dci 110 CV 4X4
 2017 urtekoa - 52.800 km - 13.700 euro

RENAULT CLIO 1.5 DCI 90 CV
 2016 urtekoa - 32.000 km - 9.200 euro
www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

Sampi Aragón

VOLKSWAGEN GOLF

HYUNDAI TUCSON

SEAT ARONA

DONEZTEBE | 948 450 354

BAZTANGOIZA TAILERRA

Citroen Berlingo
 90 CV - 3 plaza

Toyota Land Cruiser VX
 2019 - 25.000 km

Volkswagen Touran
 150 CV - 30.000 km - 7 plaza
Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
 T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoiza@yahoo.es
www.baztangoizataillerrak.com

URTEBETETZEAK



Berako **Nahia Enderak** 11 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik.



Goizuetako **Enaitz Ispasoiu Apezteak** urtea bete du azaroaren 22an. Zorionak aitabxo eta amaxoren partetik. Asko maite zaitugu!



Goizuetako **Enaitz Ispasoiu Apezteak** azaroaren 22an urtea bete du. Muxu haundi bat *kolloxka*, familia osoaren partetik eta berexiki Uxue, Maddalen, Itsaso eta Haizea zure lehengusuen partetik. Lekuederreko familia.



Goizuetako **Enaitz Ispasoiu Apezteak** urtea bete du azaroaren 22an. Muxuak eta besarkada haundi bat Curtea de Argeseko familia guztiaren partetik. Laixter gaude denak elkarrekin. Muxu asko.



Igantziko **Haizea Aranguren Irigoienek** 4 urte bete ditu azaroaren 17an. Zorionak eta muxu potoloak zure anaia Jon, bi amatxi eta gurasoen partetik!!!



Intza Ugalde Pikabea aranztarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat familia guztiaren partetik. Ongi pasa zure eguna!!



Igantziko **Oinatz eta Aiala Seinek** abenduaren 3 eta 10ean 7 eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak etxekoan partetik. Ongi pasa zuen eguna *pottokos!*



Aurtizko **Leiane Altzuri Mindegia** azaroaren 22an 9 urte bete ditu. Muxu haundi bat familia osoaren partetik eta berexiki atta, ama eta Naikari eta Joritz anai-arreben partetik.



Azaroaren 20an **Naroa Otero Telletxeak** 8 urte bete ditu. Zorionak eta zortzi muxu haundi!



Igantziko **Izaro Urtxegi Rodrigok** 7 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak printzesa, muxu erraldoi bat familia guztiaren partetik eta bereziki Unax, Enara eta Iraitzen partetik!!



Naia Apeztegia Ariztegi 10 urte beteko ditu abenduaren 1ean. Aunitz urtez eta muxu pila bat familia guztiaren partetik. Ongi pasatu eguna!!!

SORTZEAK

- **Izei Bertiz Juanena**, Doneztebeko, azaroaren 8an.

EZKONTZAK

- **Jon Maritxalar** eta **Bittori Juanikotena**, Sunbillakoa eta Mexikokoa urriaren 10ean Lekarozen.
- **Gladys Estella Valencia Isaza** eta **Maira Alejandra Chaverra Isaza**, Kolonbiakoak, azaroaren 7an Lesakan.

EGUTEGIAK 2021

hainbat formatutako egutegiak egiten ditugu



KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea

TTIPI-TTAPA · Koskontako bidea, 7 · 31760 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

URTEURRENA




Ramon ARANBURU OLAZIREGI
 Beran, 2019ko azaroaren 28an
I. urteurrena
 Umorez eta alaitsu
 egoten ginen elkarrekin,
 eta oroitzapen ahaztezin horiek
 beti geldituko dira gurekin.
ZURE EMAZTEA



URTEURRENA

Santi SANSIÑENA MARTIARENA
 Elizondón, 2019ko abenduaren 3an
I. urteurrena

Orain dela urte bat joan zinen
 baina gure artean zaitugu egunero.
 Beti gure bihotzetan egonen zara.

MILA EMAZTEA, ALAZNE, IRUNE ETA AMAGOIA ALABAK, GARAZI, EIARA, ARIANE, JANIRE ETA HELENE BILOBAK ETA MIKEL, ASIER ETA MIKEL SUHIAK

Esker mila momentu gogor horietan gurekin egon zineten guztiei.

URTEURRENA

Ramon ARANBURU OLAZIREGI
 Beran, 2019ko azaroaren 28an
I. urteurrena



Hegoak ebaki banizkio
 neria izango zen
 ez zuen alde egingo.
 Baina horrela
 ez zen gehiago txoria izango
 eta nik
 txoria nuen maite
 eta nik
 txoria nuen maite.

ZURE ALABA

OROIGARRIA

Tomas MAIA TAPIA



Zinegotzi ohia



URTEURRENA

Maria ZOZAIA IRIGOIEN
 Berrizaunen, 2019ko abenduaren 3an,
 90 urte zituela
I. urteurrena



Izan zarelako gara
 Zuk emandakoa
 Gurekin gelditzen da
 Gogoan zaitugu
 Betirako gure bihotzean.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Andres OSTOLAIZ ESKUDERO
 Lesaka-Oiartzun



Hortxe, mahai buruan, irripartsu,
 lagunei tentuz begira
 Aitzinera gure bihotzean egongo haiz
 Nahiz eta mahai buruan hutsunea izan
 Segi bidean.

LESAKAKO KUADRILLA


OROIGARRIA

MANUEL MINDEGIA GARMENDIA
 Zure hutsuneak erakusten du
 maitasunaren tamaina.
 Ulertzea hain zaila da baina
 bizirik segiko duzu gure bihotz barranean.
ZURE ILOBAK - BIRBILOBAK




OROIGARRIA

Tomas MAIA TAPIA
 2020ko azaroaren 12an hil zen,
 65 urte zituela.

Kristo Enean Beti Gazteko
 gazte aunitzen ondoan
 Sindikalista, DYAn bolondres
 aritua gaztaroan
 Udaletxean zinegotzia
 eta noski poteoan
 Tomas zarena ta egindakoa
 izanen dugu gogoan.

ETXEKOAK

HILBERRIAK

- **M^a Dolores Loiarde Nolasoyas**, Goizuetakoa, azaroaren 4an, 75 urte zituela.
- **Jose Miguel Gelbenzu Almandoz**, Sunbilla, azaroaren 5ean.
- **Micaela Mendiburu Etxenike**, Elbetekoa, azaroaren 5ean, 80 urte zituela.
- **Vicente Fagoaga Barberon**, Berakoa, azaroaren 6an, 93 urte zituela.
- **M^a Carmen Oronoz Aleman**, Elizondokoa, azaroaren 6an, 74 urte zituela.
- **Petra Barrenetxe Alzuguren**, Azpilketakoa, azaroaren 8an, 90 urte zituela.
- **M^a Lourdes Irisarri Dufurrena**, Erratzukoa, azaroaren 8an, 65 urte zituela.
- **Atanasio Ramos Rueda**, Lesakakoa, azaroaren 8an, 93 urte zituela.
- **Manuel Mindegia Garmendia**, Aurtizkoa, azaroaren 9an, 91 urte zituela.
- **Victoria Etxeberria Etxeberria**, Beintza-Labaiengoa, azaroaren 10ean.
- **Tomas Maia Tapia**, Lesakakoa, azaroaren 12an, 65 urte zituela.
- **Mari Krutz Altzuguren Sanzberro**, Etxalarkoa, azaroaren 14an, 63 urte zituela.
- **Jose Mari Bera Arretxea**, Elgorriagakoa, azaroaren 14an, 87 urte zituela.
- **Juan Iriarte Cordoba**, Elizondokoa, azaroaren 14an.
- **Alberto Martínez Rodríguez**, Leitzakoa, azaroaren 14an, 51 urte zituela.
- **Santiago Zelaieta Ganbarte**, Arraiozkoa, azaroaren 16an, 85 urte zituela.
- **Juan Sansiñena Alberro**, Iturengoa, azaroaren 16an, 84 urte zituela.
- **Serapio Vicente Irigoien**, Etxalarkoa, azaroaren 16an, 87 urte zituela.
- **Pedro M^a Landa Arratxea**, Arizkunkoa, azaroaren 16an, 82 urte zituela.
- **Juan Cruz Ormart Irigoien**, Gartzaingoa, azaroaren 16an, 89 urte zituela.

KONTATU KONTUAK



Errigorako hiru saski zozketatu ditu TTIPI-TTAPAK. Bertze aldi batez, Errigoraren hiru saski zozketatu ditu TTIPI-TTAPAK MEKNA duten harpidedunen artean, eta irabazleak Maixe Oskoz Jauregi arantzarra –goian–, Rosario Indakoetxea Zugarramurdi sunbildarra –erdian Eurne Iriarte alaba lagun duela– eta Ane Miren Garde Aleman lekaroztarra –beheitan– izan dira. Argazkian Aitor Arotzena Albizu TTIPI-TTAPAKO zuzendariarekin ageri dira. Zorionak!



Aseguru guztiekin lan egiten dugu

Zuk erabaki

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandía, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiaga kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeka

PLAZAN BAZAN



BIZKOTXO ZOPA?!

Bai harrigarria!
Neska-mutilok txokolatezko
bizkotxoak egin nahi lukete,
eta horretarako behar duten
guztia, tresnak eta osagaiak,
zopa honetan daude, aizu.
Ea aurkitzen dituzun.



ZU BAI HAMALAU!

Ez dakigu zer prestatu duen Maripurtzilek, eta zer dakarren estalki horren azpian. Nolanahi dela ere, bi irudien artean bada aldea. Zehazki, hamalau diferentzia daude, ikusten al dituzu?



- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____
- 6 _____
- 7 _____

- 8 _____
- 9 _____
- 10 _____
- 11 _____
- 12 _____
- 13 _____
- 14 _____

SUDOKUA

Plater gustagarriak eta sanoak prestatzeko moduen artean egostea da egokienetako bat. Bete itzazu lauki zuriak, EGOSIA hitza osatzen duten hizkiekin (E, G, O, S, I eta A). Gogoratu elementu bakoitza behin ager daitekeela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

E				G	
S		A		I	
		E	G		
	O	S	E		I
	E			O	S
	S	I		E	



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

770 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Elena Gaskue Jaunarena | BERROETA
Buatxabal - Kamiseta bat
Nuria Garate San Jose | IRURITA
Scape Room - Sarrerak
Mertxe Ibarra Cia | NARBARTE
Karting Indoor Irun - Sarrera bat
M Josefa Etxeberria Mendigutxia | IGANTZI
BKZ aventura - 2 sarrera
Eustakio Bazterrika Mutuberria | ZUBIETA
Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera
Jaione Olazabal Caballero | ARESO
Erein - 2 liburu
Eneritz Mitxelena Irazoki | ELBETE
Erein - 2 liburu
Araceli Molinero Ugalde | BERA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



2 sarrera

IRRISARRI LAND

www.irisariland.com



2 sarrera

ARKUPE

www.arkupagozotegia.com



Lote bat

**MU
SI
KA**



• Trikizio
• Aukera Berria

baga-biga
MUSIKA IDEIAK

www.baga-biga.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.katxi porreta.eus



www.onddotapunto.com